

BOLUNTARIOTZAREN

II. EUSKAL PLANA

2008-2010

AURKIBIDEA

1. SARRERA.	3
2. BOLUNTARIOTZAK EAE-N DUEN EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA.	7
2.1. Erreferentziazko kontzeptuak	7
2.2. Boluntariotzaren araudi-esparrua EAEn, eta bestelako xedapenak	11
2.3. Boluntariotza Euskal herri-administrazioan	14
2.4. Boluntariotzaren II. Plana egiteko diagnostikoa	17
3. 2008-2010 aldiko PLAN OPERATIBOA.	26
3.1. Sarrera	26
3.2. Eragileen mapa	27
3.3. Boluntariotzaren II. Euskal Planaren Ildo Estrategikoak	30
3.4. Helburu orokorrak, espezifikoak eta ekintzak	33
4. BALIABIDE EKONOMIKOEN AURREIKUSPENA	52
5. EBALUAZIO SISTEMA	55
5.1. Jarraipena	55
5.2. Ebaluazioa	58
5.3. Ebaluazio-adierazleak eta helburuen kuantifikazioa	59
6. ERANSKINAK	64

1.- SARRERA.

Boluntariotzaren Euskal Plan berriaren azken helburua edo txertatze estrategikoa identifikatzerakoan, gure herrialdean, une historiko honetan, politika publikoek eta, bereziki, politika sozialek, dauden arrisku sozial berriei (aukera-ikuspegitik nahiz mehatxu-ikuspegitik), globalizazio ekonomikoaren, ibilbide indibidualen dibertsifikazioaren, familia- eta komunitate-euskarriak ahultzearen eta esfera publikoaren eta gizarte zibilaren arteko zereginen banaketa berriaren testuinguruan, ematen dieten erantzun-esparruan kokatu behar dugu.

Gure gizarte likidoaren eta aldakorraren konplexutasuna dela medio botere publikoek behin eta berriz planteatu behar dituzte beren esku-hartze sozialaren, gizarte-kohesioari mesede egiteko moduaren eta gizarte egoki bat eraikitzen laguntzeko moduaren baldintzak eta asmoak. Ezin da pentsatu gizarte-ongizate homogenea eta pertsonak pasiboki bizi duten gizarte-ongizatea goitik defini daitekeela, baizik eta pertsona horiek, herritar gisa, modu oso desberdinetan eskatzen dute, eta askotan modu kontraesankorrean, gizarte-eskubide aukera zabal bat gauzatzea, eta, nolana ere, beren bizi-kalitatearen definizioan, kudeaketan eta kontrolean parte hartzeko ahalmena.

Egun bizi dugun aldaketa sozialaren ezaugarri nagusi eta definitzaileetako bat gizarte industrialean eta gizarte industrialerako diseinatu zen gizarte-babeseko sistema formalaren eta deskribatzen ari garen gizarte-sare fluktuatzaile eta askotarikoaren artean dagoen desoreka berri eta erabatekoa da. Gizarte-babesaren eredu klasikoak aurreikusten zuen hainbat gertakizuni (hala nola, gaixotasuna, langabezia edo erretiroa), neurri handi batean, prestazio ekonomikoak emanez erantzutea, baina pentsatzen zuen familia- eta komunitate-sareetan pertsonak (eta batez ere emakumeek) ekonomikoki dohainik eta politikoki modu ikusezinean emango zituztela funtzionamendurako eta gizarte-garapenerako nahitaezkoak diren hainbat laguntza informal eta harreman-ondasun.

Botere publikoek ezin dute inola ere uste horren pean jarduten jarraitu eta gero eta gaitasun handiagoa izan behar dute beren jarduera osoan, zeharka, kapital sozialaren,

konfiantza-harremanen, herritarren autokudeaketaren eta gizarte-partaidetzaren sustapena sartzeko. Bestela, politika formalaren eta gizarte errearen artean dagoen aldea gero eta handiagoa izango da, eta herri-administrazioentzat gero eta maneiaezinagoak izango dira gatazka eta ondoez soziala.

Honako honi buruz dihardugu boluntariotzari buruz hitz egiten dugunean: gizarte-arazoei erantzuteko herritarrek parte hartzeko dituzten modu zahar eta berriei buruz, elkarrekiko laguntza edo altruismo solidarioa adierazteko modu zahar eta berriei buruz, komunitate-konpromisoko eta bertute sozialeko modu zahar eta berriei buruz, eta partaidetza sinergikorako ekimen berri eta zaharrei buruz, sektore publikoak, ekonomia-sareak, eta familia-, bizikidetzan- nahiz komunitate-sareek egiten duten lanarekiko osagarri kritikoaren ikuspegia izanik.

Gure herrialde txikiak tradizio luze eta aberatsa du boluntariotzaren arloan; izan ere, herrialde honetako erakunde eta eragile askok ekintza boluntarioan dute beren jatorria edo oinarria. Hala eta guztiz ere, mendebaldeko mundu osoan gertatzen den bezala, aldatzen ari den eta krisian dagoen fenomeno bat da. Krisi horrek hazkundera eta berrasmatu beharra ekar ditzake berekin, baina, halaber, negatiboa eta suntsitzailea izan daiteke. Zirkunstantzia horren aurrean, botere publikoek ezin dute beste alde batera begiratu. Ekintza boluntarioan interesa duten eta tartean sartuta dauden eragile guztien eskutik, indarrak batu eta estrategiak lerrokatu nahi dituzte boluntariotza indartzeko eta bultzatzeko, beren autonomia ahalik eta gehien errespetatuz eta beren garapena errazteko ahalik eta interes handiena jarriz.

Hortaz, boluntariotza politika publiko esplizitua, nahitakoa eta parte-hartzailea oinarri hartuta sustatzea funtsezkoa da gizarte-politikaren eremuan, eta, are gehiago, gizarte-berrikuntzaren, ekonomiaren humanizazioaren, iraunkortasunaren kulturaren, eta, azkenik, pertsonak politika publikoan eta gizarte-bizitzan protagonismoa izan dezan eta nagusi izateko ideien aldeko apustua egiten duen herrialde baten etorkizuneko estrategian.

Boluntariotzaren II. Euskal Plana 2008-2010¹

Bigarren plan horrekin 7 urteko lana beteko da; izan ere, 2001eko abenduan eratu zen Boluntariotzaren Euskal Kontseilua. Denbora-tarte horretan Euskal Administrazioako politikak koordinatu egin dira boluntariotzaren jokalekuan jardun duten gainerako eragileekin, eta, horri esker, sektorea sustatzeko, laguntzeko eta egituratzeko bi plan integral sortu dira.

Boluntariotzaren Lehen Euskal Planak (2003-2006) dohain asko izan zituen, baina baita akats batzuk ere, eta horietatik asko ikasi dugu. Boluntariotzaren Bigarren Euskal Plan (2008-2010) hau egiten lagundu duten gaiak dira. Dokumentu honetan Plan horri buruzko ondorio eta gogoeta garrantzitsu eta erabilgarrienak irakurri ahal izango ditugu.

Bi planen artean, 2007. urtea dago. Denbora-tarte horretan negoziazioari eta elkarrizketari ekin zitzaien, baita hainbat ideien inguruan guztiak konbentzitzeko ahaleginari ere. Adierazitako ideiak honako hauek dira: aurrekoa baino eragingarriagoa izango den eta ikuspegi komun eta estrategia argi baten inguruan ekimenak batzeko balio izango duen bigarren plan eraginkorrago bat egitea. Eragile gutxiago izango dituen, baina konprometituago egongo direnak Planaren garapenarekin.

Plan hau beti bukatzeke dagoen ariketa bat baita. Eta hori, guretzat dohain bat da, inoiz ere ez akats bat. Horrela, bada, ekintza berriak gauzatuko dituzten eragile berriak batu ahal izango dira. Ekintza horiek sustatu nahi diren Ildo Estrategikoekin bat etorri beharko dute nahitaez, dagoeneko "gunea" Planean jarrita daukaten egileen artean sinergia berriak sor daitezke, boluntariotzak gure gizartean, XXI. mendeko euskal gizartean, adierazten duenari buruzko ikuspegi argiago bat ematen diguten adierazle berriak gehi daitezke.

¹ Gobernua osatzeko (VIII. Legealdia) koalizio-akordioaren IV. idatz-zatian honako hau azaltzen da: "Hezkuntza- eta kultura-erloto berdintasunerako eta garapenerako gobernua", 5. puntua "Gazteria, etorkizuneko oinarria", "Arautua gabeko okupazio-jarduerak, gizarte- eta kultura-erloto hezitzaileen prestakuntza eta gizarte-boluntariotza bultzatzeko" proposamen bat. Halaber, adierazi behar dugu Gobernu Kontseiluaren 2006ko ekainaren 27ko Akordioan "2005-2009ko VIII. Legealdiko programa betetz, Gobernuaren Ekintza Planifikatzeko Dokumentua", onartu zela, dokumentu horren barruan 2. xedapena, eta xedapen horren barruan, Planei eta Programei dagokienez, Sail honetakoak, eta 29. zenbakiarekin Boluntariotzaren 2. Euskal Plana biltzen du. Azkenik, 2005-2009ko Gizarte Gaiak izeneko Legegintzaren Planean (Lanerako oinarriak), Gizarte Ongizateko Zuzendaritzari dagokionaren barnean, eta "Gizarte Partaidetzaren eta Gizarte Ekimenaren Sustapena" deituriko alorrean, lehenengo puntuan honako hau biltzen da: "Boluntariotzaren Euskal Planaren garapena eta jarraipena. Boluntariotzaren Lehen Planaren ebaluazioa eta Bigarrena egitea".

Azkenik, dokumentuan ikusiko dugun bezala, boluntariotzak Euskal Administrazioak sustatzen dituen politikekin duen harreman berezia aipa dezakegu. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari dagokionez, esan dezakegu boluntariotza —zuzenean nahiz zeharka— programa askoren funtsezko ardatza dela, programa horiek biltzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeekin duten harremanaren bitartez. Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza, Inmigrazio Zuzendaritza, Droga Gaietako Zuzendaritza edo Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza horren adibide garbiak dira. Eusko Jaurlaritzaren barruan, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua osatzen duten Sailek babesten dute eta elkarlanean jarduten dute boluntariotza sustatzeko lanetan diruz laguntzeko beren programen bitartez. Are gehiago, Organo hori osatzen ez duten beste Sail batzuk hurbildu dira elkarlanean jarduteko ekintza jakin batzuk txertatuz.

Hortaz, ondoriozta dezakegu boluntariotzak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zati izanik, eta erakunde horiek Hirugarren Sektorearen funtsezko aktibo gisa, garrantzi handia izan duela, orain baduela eta etorkizunean ere izango duela Herri Administrazioen politiketean.

Stua.: Javier Madrazo Lavín

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua

2.- BOLUNTARIOTZAK EAE-N DUEN EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA.

2.1.- ERREFERENTZIAZKO KONTZEPTUAK.

Boluntariotzaren II. Euskal Plana lantzerakoan, deigarri suertatu zaizkigu hainbat kontzeptu, gure ustez, gogoeta egiteko funtsezko kontzeptuak direlako, baita aurkezten ari garen planaren jarraipena egiteko eta plana bera hobeto ulertzeko nahitaezkoak ere.

Atal honetan honako kontzeptu hauek landuko ditugu:

- "*Boluntariotza*",
- "*Interes Orokorreko Jarduerak*",
- "*Boluntariotzaren Erakundeak*",
- "*Hirugarren sektorea / Irabazi-asmorik gabeko Sektorea*"

17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa

"BOLUNTARIOTZA"

Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 2. artikulua boluntariotzaren kontzeptua definitzen du, eta honako hau adierazten du:

1.- Lege honen ondorioetarako, pertsona fisikoek aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa da boluntariotza, ekimen horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.
- Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoia lan-, funtzionariotza- edo merkataritza-harremana ez izatea, ezta obligazio pertsonala edo betebeharrak juridikoa ere.
- Irabazi-asmorik gabeko erakunde bidez eta programa edo proiektu zehatzei jarraiki eginak izatea.
- Ordainsaririk gabeak izatea.
- Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzeko.

2.- Legearen ondorioetarako ez dira boluntariotza izango erakundeetatik kanpo une jakin batean edo noizean behin familia kontuengatik, adiskidetasunagatik, on egiteagatik edo auzoko bizikidetasun onak bultzatuta egindako borondatezko ekintzak.

Boluntariotzaren II. Euskal Plan hau egiterakoan egiaztatu dugu boluntariotzaren definizioa ulertzeko hainbat modu daudela. Kontzeptu horiek, normalean, legeak esaten duena aldatu baino gehiago, esanahia zabaldu egiten dute.

Normalean, ohikoena izaten da "boluntariotza" hitzari bi gehigarri eranstea, bata boluntariotza epe luzera gauzatzen den ekintza gisa identifikatzearekin zerikusia duena, eta beste alde batetik, astean zenbat boluntariotza-ordu egin behar diren ere aurreikusten da; normalean 4 ordutik 6 ordura bitarte izaten dira.

"INTERES OROKORREKO JARDUERAK"

Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legeak "boluntariotza" kontzeptuari buruz ematen duen definizioa dela-eta, egiaztatu dugun bezala, ikusi dugu *"interes orokorreko ekimenen multzoa dela boluntariotza"*.

Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 3. artikuluan honela definitzen ditu interes orokorreko jarduerak: *"gizartearen edo pertsonaren onerako lan egiteko konpromezua dutenak, esparrua edozein dela ere: gizartea, komunitatea, hiria, kultura, garapena, ingurugiroaren babesa edo antzekoa"*.

Definizio honetan "edo antzekoa" hitzak sartzeak atea irekita uzten du boluntariotzat hartzeko Legean deskribatutako eremuetan soilik gauzatzen ez diren jarduerak. Oso garrantzikoa da atal hau kontuan hartzea; izan ere, boluntariotzak ez du mugarik, eta bere indarguneetako bat da gizartearen hainbat eremutan presentzia izatea.

"Boluntariotza" kontzeptuaren definizioan egiaztatu ahal izan dugu Boluntarioei buruzko Euskal Legearen 2.1 artikulua argi eta garbi adierazten duela boluntariotza "irabazi-asmorik ez duten erakundeentz" gauzatu behar dela.

Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 8. artikuluan definitzen dira irabazi-asmorik gabeko erakunde horiek:

"BOLUNTARIOTZAREN ERAKUNDEAK"

1.- Boluntarioak dituzten erakundeak, edozein lege-ereduri dagozkiola ere, baldintza hauek bete beharko dituzte: legearen arabera osatuak izatea, nortasun juridiko propioa edukitzea, irabazi-asmorik ez izatea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen barruan fundazio eta elkarteei dagokien erregistroan behar bezala erregistratuta egotea eta interes orokorreko ekintzen barruan programak edo egitasmoak garatzea (lege honetako 3. artikuluan zehaztuak).

2.- Boluntariotzako erakunde izendapena erakunde hauek hartuko dute: aurreko baldintzak betetzeaz gain kide gehienak boluntarioak dituztelarik, egiten dituzten programa edo egitasmo gehienak batik bat boluntarioen bidez egiten dituzten erakundeak.

Boluntariotzaren II. Euskal Plana 8.1 artikuluko "boluntarioak dituzten" erakundeentzat da, eduki behar duten boluntario kopurua zehaztu gabe, baita 8.2 artikuluko "boluntariotzako erakundeentzat" ere. Azken artikulua horren arabera, erakunde horiek

batez ere boluntarioez osatuta daude, baina ez du irizpide zehatzik ematen "batez ere" hitza neurtzeko.

"HIRUGARREN SEKTOREA / IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREA. ESPARRU OROKORRA"

Zer entitatek osatzen dute Hirugarren Sektorea? Gure ustez, edozein deskribapen mota sakondu aurretik, oso modu bisualean irudika dezakegu zer entitate desberdinek osatzen duten. Begiratu azkar batean ikus dezakegu jokaleku berean elkarrekin bizi direla elkarteak, klubak eta kirol-elkarteak, kooperatibak, fundazioak, lanbide-elkarteak, erlijio-erakundeak, aurrezki-kutxen gizarte-ekintzak, baita estatus berezia duten irabazi asmorik gabeko zenbait erakunde pribatu ere.

"Boluntariotzaren II. Euskal Plana" egiterakoan, izan duen lehen erronka garrantzitsua Plan hau Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguruko egoerari aplikatu dakiokeen erreferentzia-esparru errealean kokatzea izan da.

Guk jarraitu dugun erreferentzia-esparrua Planaren eraginpeko sektorean, hau da, irabazi-asmorik gabeko sektorean (Hirugarren Sektorea) kokatzea izan da. Argi dago boluntarioak dituzten erakundeak biltzen dituen sektoreari buruzko gogoetarik egin gabe, boluntariotzari buruzko gure ikuspegia egin daitekeen gogoeta osoaren zati txiki batera soilik mugatuko litzatekeela. Guretzat zaila izango litzateke aurrerago, Boluntariotzak EAEn duen diagnostikoaren 5. atalean, aztertuko ditugun elementu batzuen zergatia ulertzea. Nolanahi ere, nabarmendu nahi dugu, halaber, orain lantzen ari garena bereziki boluntariotzarekin zerikusia duten gaiak lantzen dituen Plana dela, ez Hirugarren Sektoreari buruzko gaiak lantzen dituen.

Dena den, atal honetan ez da irabazi-asmorik gabeko sektorearen azterketa zehatzik egingo, baizik eta sektorearen gaur egungo egoeraren funtsezko ezaugarri batzuk azpimarratuko dituen puntu bat da, **sektorearen ekarpenari eta gartzeko duen indarrari buruzko ikuspena eta sinesgarritasuna handitu ahal izateko.**

Nazioarteko azterlan garrantzitsuek —esate baterako, Johns Hopkins University Unibertsitateko Gizarte Zibilaren Azterlan Zentroak aurkezten duena, mundu osoko 38 herrialdetan egin dena eta *"Global Civil Society: Dimensions of the Nonprofit Sector"* titulua duena, Lester, M. Et al. (1999)— honako hauek nabarmentzen dituzte, besteak beste, gogoeta-elementu gisa: sektorearen indar ekonomikoa, biztanleria helduaren ahalegin solidarioa, gizarte-zerbitzuen eremuan duen nagusitasuna edo bere finantza-egiturari buruz gogoeta egiteko premia.

Hirugarren Sektoreak Espainian duen kokapenari dagokionez, Azterlanak honako ondorio hauek atera ditu: sektorea garrantzi handia hartzen ari da gure gizartean, filantropia-maila handia du eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen erantzukizuna eta efizientzia aztertu eta zainduko duen **konfiantza-estrategia berritua** eraikitzeke premia dago, **betiere sektorearen integrazioa eta globalizazioa lortzeko ahaleginak ginez.**

Egile horien ustez, honako hau da sektorearen helburu estrategikoa: boluntariotza hedatzea, gobernuen nahiz negozioen independentzia-maila esanguratsua bermatuko duena; ildo horretatik, bere horretan geratzen direla nabarmentzen dute, irabazi-asmorik gabeko eragiketen filantropia hedatzeko egon litezkeen boluntarioen erreserba handiak aprobetxatu gabe.

Egon litekeen garapen-bide bat honako hau izango litzateke: **etorkizunean sektorea aitzindari izan dadin eskatuko da hezkuntza publikoko ahalegin garrantzitsuak** egitea; horretaz gain, finantzatzeko eta antolatze sormen-ereduak ere eskatuko dira.

Egile horiek proposatzen dituzten beste erronka batzuk honako hauek dira: **gobernuaren eta irabazi-asmorik gabeko sektorearen arteko harremanetan dagoen mesfidantzaren muga gaiztozea**, beharbada mesfidantza hori bien arteko harremanei buruzko politikarik ezarri ez delako izan daiteke. Bestearen ahulezia eta indarguneei buruzko kontzientziatorik ez izateak eragotz dezake garapenerako harreman sinbiotikoa.

Behar bezala ezarrita dagoen eta irabazi-asmorik gabeko sektorearen zereginari eta etorkizunari buruz maila handia duen Espainiako batzordea, maila handiko eragile askoz osatua, plataforma egokia izan daiteke elkarrizketa politikoa abian jartzeko; egoera hori nahitaez behar da, bereziki Europan integratzeari begira. Munduan aukera bakar bat dago gizarte zibila, filantropia eta boluntarioria munduko mapa politikoan kokatuta egon daitezen. Prozesu horren azpian dagoen ideia zera da, erakunde horiek mugiarazten dituen ahalegin boluntarioa jarduera ekonomikoari buruz egiten diren balioespenean txertatu beharko litzatekeela.

Idea hori sortu da Nazio Batuen Estatistika Batzordeak 2002. urtean "Kontuen sistema nazionalako irabazi-asmorik gabeko Erakundeei buruzko eskuliburua" onartu zuelako. Eskuliburua hori Johns Hopkins Unibertsitateko Gizarte Zibilerako Azterlanen Zentroak, NBERen Estatistika Zentroak eta estatistika-alorreko Nazioarteko aditu talde batek garatu zuten.

Horregatik guztiagatik, nahitaezkoa da EAEn "**Liburu Zuri**" bat izatea, hau da, honako alor hauek landuko dituen **Plan Estrategiko bat** egitea: bere erakunde-nortasunaren, bere ahulezia nahiz indarguneei eta dituen erronka eta arriskuen ildo nagusiak ez ezik lortu nahi dituen helburuak, eduki behar dituen baliabideak eta etorkizunean jardun ahal izango duen baldintza sozialak ere ezarriko dituen.

Aurrerago AMIA azterketan ikusiko dugun bezala, Azterlanean nabarmentzen diren elementu batzuk ere gure lan-tailerretan sortu dira Plana egiterakoan parte hartu duten Eragileekin, eta elementu horiek Boluntarioriazaren II. Euskal Planaren jardun-eremu posibleetan bildu dira.

2.2.- BOLUNTARIOTZAREN ARAUDI ESPARRUA EAE-N, ETA BESTELAKO XEDAPENAK.

Boluntariotzaren II. Euskal Planaren arau-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren jokalekua, zuzenean edo zeharka, arautzen² edo kontuan hartzen duten³ arau guztiek eratuko dute.

Hortaz, egungo testuinguruan honako arau-garapen hauek ditugu, edo etorkizunean izango ditugula aurreikusten dugu:

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

1. taula – Boluntariotzarekin zuzeneko harremana duena

- **17/1998 Legea, ekainaren 25koa**, Boluntarioei buruzkoa.
- **169/2000 Dekretua, irailaren 1koa**, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren funtzionamendu-araudia onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi arautzen dituena.
- **30/2003 Dekretua, otsailaren 18koa**, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamenduari buruzkoa.
- **1/1996 Legea, apirilaren 3koa**, Euskadiko Larrialdien Kudeaketari buruzkoa.
- **1/2007 Legea, otsailaren 22koa**, Garapen Lankidetzari buruzkoa.
- **Dekretu Proiektua**, larrialdi-egoerei aurre egiteko euskal sisteman herritarren borondatezko partaidetza arautzen duena.

² 1. eta 2. taulak

³ 3., 4., 5. eta 6. taulak

2. taula – Boluntariotzarekin zeharkako harremana duena

- ❑ **7/2007 Legea, ekainaren 22koa**, Euskadiko Elkarteei buruzkoa.
- ❑ **12/1994 Legea, ekainaren 17koa**, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa.
- ❑ **4/2005 Legea, otsailaren 18koa**, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.
- ❑ **1/2004 Foru Araua, otsailaren 24koa**, Bizkaiko Batzar Orokorrena, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-erregimenari eta mezenasgoarentzako zerga-pizgarriei buruzkoa.
- ❑ **3/2004 Foru Araua, apirilaren 7koa**, Gipuzkoako Batzar Orokorrena, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-erregimenari eta mezenasgoarentzako zerga-pizgarriei buruzkoa.
- ❑ **16/2004 Foru Araua, uztailaren 12koa**, Arabako Batzar Orokorrena, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-erregimenari eta mezenasgoarentzako zerga-pizgarriei buruzkoa.

ESTATUA

3. taula - Estatua

- ❑ **6/1996 Legea, urtarrilaren 15koa**, Boluntarioei buruzkoa.

EUROPA

4. taula - Europar Batasuna

- ❑ **Europako Parlamentuaren Ebazpena, 1983ko abenduaren 16koa, boluntarioei buruzkoa.** Ebazpen horretan aitortzen zen funtsezko aldea borondatezko jardueretarako interes orokorra izatea eta azpiegitura egokia garatzea boluntariotzari buruzko politikak gauzatzeko, eta Ebazpen horren bitartez, Europako Batzordeari eskatu zitzaion arreta sistematikoa jar zezala boluntariotzari buruzko gaietan; horretaz gain, eskatu zitzaion boluntarioek egiten dituzten gastuak eta pertsona horien gizarte-segurantza ordainduko dituen "borondatezko lanaren estatutua" eratzea.
- ❑ **1994ko urriaren 31ko Ebazpena, Europar Batasuneko Ministro Kontseiluarena**, Babes Zibileko alorrean Erkidegoko Lankidetzaren Indartzeari buruzkoa.
- ❑ **Amsterdamgo Ituna. 38. Deklarazioa, 1997ko urriaren 2koa**; horren bitartez, aitortu da garrantzizkoa dela elkartasun soziala garatzeko borondatezko zerbitzuetako jarduerak egindako ekarpena, eta Boluntariotzaren Europako Erakundearen eta Fundazioen zeregina jakinarazi eta sustatu da.
- ❑ **1031/2000/EE zenbakiko Erabakia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2000ko apirilaren 13koa**; horren bitartez, «Gazteria» deituriko erkidegoaren ekintza-programa ezarri zen.
- ❑ **291/2003/EE zenbakiko Erabakia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2003ko otsailaren 6koa**; horren bitartez, 2004. urtea Kirol bidezko Europako Urtea izango zela ezarri zen.
- ❑ **1719/2006/EE zenbakiko Erabakia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2006ko azaroaren 15koa**; horren bitartez, «Gazteria ekintzan» deituriko programa ezarri zen 2007-2013 aldirako.

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA

Nazioartean, ekimenak aurreikusi dira Nazio Batuen funtsezko eremua oinarri hartuta. Jarraian, bereziki esanguratsuak diren ekimen batzuk bildu ditugu⁴.

5. taula - Nazio Batuen Erakundea

- ❑ **40/212 Ebazpena, 1985eko abenduaren 17koa**; horren bitartez, abenduaren 5a Garapen Ekonomikorako eta Sozialerako Boluntarioen Nazioarteko Eguna deklaratu da.
- ❑ **A/RES/52/17 Ebazpena, 1997ko azarokoa**, 2001. urtea Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna izendatzen duena.
- ❑ **A/RES/56/38 Ebazpena, 2002ko urtarrilaren 10ekoa**. Boluntariotza laguntzeari buruzko gomendioak.

ERAKUNDEETATIK KANPOKO EKIMENAK

Azkenik, orain arte ikusi ditugun araudien antzekoa ez bada ere, azken urte hauetan Europako eremuan gauzatu diren ekimen batzuk aipatu nahi ditugu. Proiektu batzuk dira, erakundeetatik kanpoko eskabideetatik eratorriak, ikuspegi homogenezatzailea oinarri hartuta, ekintza boluntarioa eta erakunde publikoek bete behar duten zeregina argitzen laguntzen dutenak.

6. taula - Erakundeetatik kanpoko ekimenak

- ❑ **Boluntariotzari buruzko Aldarrikapen Unibertsala**, Borondatezko Ahaleginen Nazioarteko Elkartearena (IAVE).
- ❑ **European Roadmap to 2010**. Boluntariotza eta Partaidetza Europar Batasunean.
- ❑ **Europako boluntariotzarako Agiria**, Boluntariotzaren Europako Zentroarena.

⁴ Zehaztu behar dugu xedapen horiek juridikoki ez direla loteslea EAEn.

2.3.- BOLUNTARIOTZA EUSKAL HERRI ADMINISTRAZIOAN.

Gizarteak eta bere erakundeek elkartasun-politiketan parte hartzeko, 2001. urtean **Boluntariotzaren Euskal Kontseilua** sortu zen boluntariotzaren arloko elkartze-, aholkularitza- eta kontsulta-organo gisa. Kontseilu hori gizarte-ongizate alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailari atxikita dago. Kasu honetan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari.

Organo horretan Eusko Jaurlaritzako sei Sailek boluntariotzaren alorraren inguruan gauzatu behar duten jarduera ezartzen da. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari bost alorretan gauzatzen diren jarduerak erantsi behar zaizkio. Adierazitako alorrek honako hauek dira: Herrizaingo Saila, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Osasun Saila, Kultura, Gazteria eta Kirol Saila, eta, azkenik, Hezkuntza Saila.

Sei Sail horiei Foru Aldundietako hiru ordezkariak erantsi behar zaizkie, baita EUDELEko hirurak ere.

Zalantzarik gabe, Boluntariotzaren Euskal Kontseilu hau alda liteke ordezkariak gehiago sartuz, Eusko Jaurlaritzaren sailei dagokienez. Esate baterako, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila sartuz. Sail horrek irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta boluntarioen arteko harremana sustatzen du hainbat gai garrantzitsutan: hala nola, bazterkeria-arriskuan daudenak gizarteratzea eta Giza Eskubideak.

Ilido hori bera aipa dakieke bi saili, hala nola, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari; izan ere, Sail horrek animaliak babesteko jarduera mota batera oso bideratuta dauden erakunde eta boluntarioekin lan egiten du, eta Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeari; erakunde horrek bi ikuspuntu oinarri hartuta hartu baitezake parte: alde batetik, administrazioko berdintasun-politiken zeharkakotasunaren bermatzaile gisa, eta, beste alde batetik, arlo horretako boluntariotza antolatuarekin zerikusia duen ente gisa.

Hortaz, legealdi honetan Eusko Jaurlaritza banatuta dagoen 13 arloen artean, 8 sailetan onartzen da boluntarioek gauzatzen duten lana; horretaz gain, lan hori zaindu eta sustatu egiten da Planean, programa espezifikoekin bitartez, baita organo eta kontseilu, hitzarmen, diru-laguntza eta abarretan parte hartuz ere.

Izan ere, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren ordezkartzan dagoeneko eginkizunak gauzatzen dituzten Eusko Jaurlaritzaren Saitetara itzuliz, eta sail horiek egunero gauzatzen duten jardura zertxobait gehiago zehaztuz, euskal herritarrek interesekoak diren gaiei buruzko ikuspegian eta horiekiko hurbilpenean boluntariotza lortu duen garrantzi-maila zenbaterainokoa den erakusteko honako taula egin daiteke.

BOLUNTARIOTZAREN SUSTAPENAREKIN ZUZENENKO HARREMANA DUTEN SAILEN EKINTZAK – EUSKO JAURLARITZA					
ERAGILEA	EKINTZA				
	PLANAK	LEGERIA	PROGRAMAK	HITZARMENAK	DIRU-LAGUNTZAK
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIK					
HERRIZAINGOA					
KULTURA, GAZTERIA ETA KIROLAK					
INGURUMENA					
OSASUNA					
HEZKUNTZA					

Maila bat gehiago jaitsez, azterketa bera egin liteke Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailean. Irabazi-asmorik gabeko erakundeetan pertsonen partaidetza garrantzizkotzat hartzen den jardun-eremua.

BOLUNTARIOTZAREN SUSTAPENAREKIN HARREMANA DUTEN SAILEN EKINTZAK – ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA					
ERAGILEA	EKINTZA				
	PLANAK	LEGERIA	PROGRAMAK	HITZARMENAK	DIRU-LAGUNTZAK
GIZARTE ONGIZATEA					
GARAPEN LANKIDETZA					
DROGA GAIK					
INMIGRAZIOA					

Eusko Jaurlaritzarekin zerikusia duen boluntariotzaren sustapen horri Foru Aldundiek egiten dutena (Eusko Jaurlaritzak egiten duena bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa) gehitu behar zaio.

BOLUNTARIOTZAREN SUSTAPENAREKIN ZERIKUSIA DUTEN EKINTZAK – FORU ALDUNDIAK					
ERAGILEA	EKINTZA				
	PLANAK	LEGERIA	PROGRAMAK	HITZARMENAK	DIRU-LAGUNTZAK
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA					
ARABAKO FORU ALDUNDIA					
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA					

Ondorio gisa, sarreran aipatu dugun bezala, esan behar dugu botere publikoek ezin dutela beste alde batera begiratu boluntariotza zaintzeari eta sustatzeari dagokionez, are gutxiago bidegurutzean gauden une honetan. Bide egokia aukeratzeko badugu, honako ezaugarri hauek dituen boluntariotzaren euskarriak jarri ahal izango ditugu: eraldatzailea, agerikoagoa eta hobeto ezagutzen dena, ugariagoa, modernoagoa eta eraginkorragoa egungo gizartean dauden erronken aurrean. Hortaz, boluntariotza bultzatzeko indarrak eta estrategiak elkartzeko unea iritsi zaigu, bere independentzia eta autonomia ahalik eta gehien errespetatuz.

2.4.-BOLUNTARIOTZAREN II. PLANA EGITEKO DIAGNOSTIKOA.

Jarraian, Boluntariotzaren I. Euskal Planean garatutako ebaluazio-faseen eta boluntariotzaren EAEko egoerari buruz 2007. urtean egin ziren Txostenetako ondorioen arabera, eta azkenik, Boluntariotzaren II. Euskal Plana⁵ garatzeko egindako AMIA azterketa kontuan hartuta lortutako ondorio esanguratsuenak aipatuko ditugu. Ondorio horiek Boluntariotzaren II. Euskal Planaren (2008-2010) Ildo Estrategikoen, Helburu Orokorren eta Espezifikoen oinarri dira.

1.- Boluntariotzaren I. Euskal Planaren Azken Balantzea

Boluntariotzarekin zuzeneko harremana duten eta 2003., 2004., 2005. eta 2006. urteetan ezarri diren ekintzei ⁶ dagokienez, honako emaitza-taula hau aurkeztuko dugu:

EKINTZAK URTEAREN ETA ERAGILEAREN ARABERA						
ERAGILEA	2003	2004	2005	2006	GUZTIRA	%
ERAKUNDEAK		115	172	205	492	% 56,29
AGENTZIAK		45	20	9	74	% 8,47
FORU ALDUNDIAK		33	39	27	99	% 11,33
UDALAK		38	18	17	73	% 8,35
EUSKO JAURLARITZA	5	42	36	25	108	% 12,36
BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA		13	7	3	23	% 2,63
BESTE BATZUK		4	1		5	% 0,57
GUZTIRA	5	290	293	286	874	% 100

⁵ Honako webgune honetan dago dokumentazioa eskuragarri:

⁶ Ekintzailearen hartzailetzat edo ekintza gauzatzeko bitartekarizat boluntarioak hartzen dituzten ekintzak. Ekintzak sustatzeko edo horien bitartez ekintzak egiteko programa zehatzak diruz lagun daitezkeen programak eta hitzarmenak izan daitezke.

Eragile bakoitzeko metatutako aurrekontuari dagokionez, urte hauetan aurkeztutako Betearazpen Balantzeetan honako zenbateko global hauek jaso dira:

EKINTZAK URTEAREN ETA ERAGILEAREN ARABERA						
ERAGILEA	2003	2004	2005	2006	GUZTIRA	%
ERAKUNDEAK		343.160,61 €	208.334,29 €	601.006,86 €	1.152.501,76 €	% 8,57
AGENTZIAK		302.340,89 €	530.900,52 €	142.650,00 €	975.891,41 €	% 7,26
FORU ALDUNDIAK		1.557.723,18 €	2.156.313,40 €	2.150.280,71 €	5.864.317,29 €	% 43,61
UDALAK		619.556,28 €	506.960,00 €	490.559,55 €	1.617.075,83 €	% 12,03
EUSKO JAURLARITZA	226.830,81 €	616.186,53 €	650.437,97 €	613.615,07 €	2.107.070,38 €	% 15,67
BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA		46.295,28 €	41.000,00 €	32.241,00 €	119.536,28 €	% 0,89
BESTE BATZUK		1.560.650,00 €	49.900,00 €		1.610.550,00 €	% 11,98
GUZTIRA	226.830,81 €	5.045.912,77 €	4.143.846,18 €	4.030.353,19 €	13.446.942,95 €	% 100

Ekintzen taula gauzatutako aurrekontuen taularekin alderatzen badugu, ikusiko dugu boluntariotzaren erakundeek eta horien sareek % 56,2ko erantzukizuna dutela gauzatutako ekintzetan, baina guztizko aurrekontuaren % 8,5 baino ez dutela gauzatu. Aitzitik herri-administrazioek ekintzen % 32,04ren erantzukizuna dute eta guztizko aurrekontuaren % 71,3 gauzatu dute.

Datu horrek honako ideia hau indartzen du: nahiz eta gure ustez boluntariotza erakundeetan dagoen, eta, ez herri-administrazioetan, Boluntariotzaren II. Euskal Planean koherenteagoa izango da ekintza eta eragile bakan horietan esku-hartzea ekintza baten onura biderkatzeko ekintza hori erakundeetaraino jaisten denean.

Datu horiek erakusten dute Boluntariotzaren I. Euskal Planaren errekerimenduetan Erdu, Gizalde eta Bolunta Agentziek, hiru Foru Aldundiek eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan sartuta dauden Eusko Jaurlaritzaren Sailek izan duten partaidetzaren **Fidelitasuna**. Udalei eta Boluntariotzaren Erakundeen eta horien sareei dagokienez, partaidetza **irregularragoa** izan da.

Urteko gastua garrantzizkoa eta egonkorra izan da, baina ez du izan nahiko genukeen goranzko joerarik urte hauetan aipatu ditugun konpromiso- eta partaidetza-arazoak direla medio. Guztira, **874** ekintzatan **13.446.942,95 €**; zenbateko hori honela banakatzen da:

- 2003an: 226.830,81 €
- 2004an: 5.045.912,77 €

- 2005ean: 4.143.846,18 €
- 2006an: 4.030.353,19 €

2.- Boluntariotzaren I. Euskal Planarekin ikasitakoa Boluntariotzaren II. Euskal Plana egiteari begira.

Boluntariotzaren I. Euskal Planaren egokitasuna

Boluntariotzaren I. Euskal Planaren egokitasuna, hau da, plan horrek EAEko boluntariotzaren premia zehatzei erantzuten ote dion, boluntariotzaren erakundeen interesak eta Boluntariotzaren I. Euskal Plana interes horietara egokitzen ote den kontuan hartuta aztertu da.

Horri dagokionez, ondorio nagusiak berresten du egokia dela boluntariotzaren euskal plan publiko bat izatea, horren helburu nagusia EAEko eremuan boluntariotzaren jarduera indartzea izanik.

Planaren nahikotasuna

Aitzitik, Boluntariotzaren I. Euskal Plana garatzeko izan diren baliabideei buruzko gaiari dagokionez, azterketa ez da hain positiboa; izan ere, ebaluazio kualitatiboan azaltzen denez, baliabide horiek ez dira nahikoa izan Boluntariotzaren I. Euskal Planak lortu nahi zituen helburu nagusiak erdietsi ahal izateko. Horrek esan nahi du, egiaztatzen dela ahulezia nabaria dela, eta Boluntariotzaren II. Euskal Plana zehazteari begira gomendio argienetako bat dela; izan ere, nahitaezkoa da baliabideak edukitzea plan-esparruan biltzen diren ekintzetako asko gauzatzeko, eta baliabide nahikoa ez izateak ekartzen du diseinurik hoberena, hobekien adostutako plan parte-hartzailea proposamen hutsa izatea, gauzatzeko inolako ahalmenik izan gabe.

Planaren nahikotasunari buruz ikasitako ikasgaietako bat plana garatzeko baliabideak emateko erantzukizuna duenak hartutako konpromisoak duen garrantzi bereziarekin zerikusia duena da. Ildo horretatik, eta Boluntariotzaren II. Euskal Plana egiteari begira, ebaluazioak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak planaren sustatzaile gisa duen zereginarekiko protagonismoa nabarmentzen du, baina hori

ez da inolako oztopoa izango etorkizuneko planak parte-hartzailea eta sinergikoa izan behar duela ahazteko.

Planaren koherentzia

Planaren koherentziak eskatzen du plana eratzen duten elementuak globalenetik zehatzenera hedatzea, plana egituratzen duten zatien artean harreman argia egon dadin. Zati horiek honako hauek dira: helburuak espero ziren emaitzekin, helburu orokorrak eta lortu nahi ziren eraginak, helburuak, emaitzak eta ekintza-arloak.

Hortaz, plangintza horren ostean, bigarren plana egiteko prozesuari begira, honako ondorio nagusi hau ateratzen da: komenigarria da planaren diseinuan egitura kateatua eta koherentea izatea. Egitura horretan, esate baterako, bere helburuak atzeman daitezke, modu mailakatuan zerrendatuta, orokorrenetik hasita espezifikoenetaraino, eta, halaber, helburu horiek –esku-hartze arlo jakin batzuei atxikiak– ekintza espezifikoen ondorio izango dira.

Planaren ebaluazioa

Horretaz gain, ebaluazio horretan, gure ustez, aurrerapen garrantzitsuak egin behar ziren ezarri beharreko ekintzen jarraipenari eta ebaluazioari dagokionez. Lehenengo planean, adierazleen sistema, askotan, intuizioz ezarri zen, zeren, plana diseinatu zenean, ikusi baitzen boluntariotzaren egoera errealari buruzko aurretiazko informazioaren, hau da, benetako neurgailuak eraikitzen lagunduko zuen informazioaren, nolabaiteko gabezia zegoela. Espero dugu urte hauetan egindako lanari esker arlo horretan aurrera egin ahal izatea. Horrenbestez, badirudi interesgarria dela plan operatibo bat, bere hedapenean sekuentziatua, txertatzea. Elementu hori ez zegoen lehenengo planean.

3.- Boluntariotzaren egoera EAE-N

Ikusi dugu boluntariotzak une honetan bizi duen egoerarekiko kezka gero eta handiagoa dutela erakundeek. "Ohiko asoziazionismoaren" krisi-egoerak edo bidegurutzeak elkartasun modu berriak ekarri ditu, eta erakundeek modu horietara egokitu behar dute. Dagoeneko ez da baliagarria boluntariotzaren ohiko ikuskera, baizik eta erakundeetako boluntarioak erakartzeko, horiei erantzuteko, horiekin lan egiteko eta elkarreragiteko sistemak modernizatu eta beste boluntariotza mota batzuk sustatu behar ditu Herri Administrazioak.

Horrenbestez, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren 1. Ildo Estrategikoan hainbat jardun ezarriko ditu arazoaren oinarrian: irabazi-asmorik gabeko erakundeetan boluntarioak ez izatea. Bereziki, gazteen artean; izan ere, gazteak galtzen ari dira balio solidarioak, eta oso gutxi irauten dute erakundeetan.

4.- Boluntariotzaren erakundeak edo boluntarioak dituzten erakundeak

Ikusi dugu EAEk gizarte zibil oso aktiboa izan duela, gizarte-arloko elkarrekin eta mugimenduetan parte hartzeko joera duena. Hori dela eta, elkarrekin sare indartsua duen gizarteak garatu da, eta herritartasunaren zentzu sendoa lortzeko lagungarri izan da. Boluntarioek askotariko erakunde horiek osatzen dituzte, nahiz eta erakundeen talde-ikuspegia galdu duten; nolana ere, ikuspegi hori garrantzizkoa edo lehentasunezkoa da erakundeen barnean.

Bigarren Planak ahaleginak egingo ditu irabazi-asmorik gabeko erakundeei mesede egiteko, baina betiere boluntarioak nagusi izanik; izan ere, gure ustez, boluntarioak dira tresna horren hartzaileak, ez erakundeak. Hau da, ondorioztatzen dugu ezin dela boluntarioekin interakzionatu erakundeak eraikitzen diren mailetan zehar igaro gabe eta erakundeen funtzionamendu naturala zertxobait aldatu gabe.

5.- Errealitateari buruzko ezagutza sakonagoa

Boluntariotzan politika publikoak ezartzerakoan sortzen den funtsezko arazoetako bat honako hau da: sektorea benetan ez ezagutzea, ezta bere errealitatea, bere mugak, bere erakundeak eta abar ere.

Ildo horretatik, nabarmen daiteke boluntariotzaren EAEko benetako egoera zein den jakitearen inguruan Boluntariotzaren bigarren Euskal Planak egitea aurreikusita duen ahalegina.

Boluntariotzaren EAEko Egoerari buruzko Txostenaren ekimenari 2010. urtean hainbat azterlan erantsi behar zaizkio, jardun-eremuen edo boluntariotzak ematen duen ikuspegia baino ikuspegi globalagoa eskatzen diguten gaien arabera banatuta.

Era horretan, eragile parte-hartzaileei egin zaien proposamena honela laburbiltzen da:

- 1. 1. proposamena:** Dagoeneko Eusko Jurlaritzak garatzen ditueni buruzko azterlana, baina Sailaren eremuko erakundeekin, bereziki. Ideia honako hau da: sektoreak 2010. urtean zenbateraino hartuko duenari buruz gutxi gorabeherako ikuspegia izatea, ez boluntarioen ikuspegitik, baizik eta erakundeen ikuspegitik.
 - a. Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak egiten dituen item berak neurtu beharko lirateke gutxienez.
 - b. Lurralde Historikoen eta sektoreen araberako konparazio-azterketak egitea ahalbidetuko liguke.

- 2. 2. proposamena:** Eskualdeen Batzordearen ustez, boluntariotzari buruzko ikerketen eta estatistika-datuen gabezia dago, batez ere honako honi dagokionez:
 - a. Batzordeak nabarmentzen du nahitaezkoa dela lehenbailehen ekitea boluntariotzaren ekonomia-laguntzari buruz nazioan edo komunitatean estatistika osatuen eta zehatzen gabeziari.
 - b. Batzordeak Estatu kideei eskatu die boluntariotzaren esku-hartzeari buruzko estatistika-datu zehatzak biltzeko tokiko eta eskualdeko mailan, bi maila horietarako egokiak diren ekimenak garatzen laguntzeko;
 - c. Europar Batzordeari eskatu dio boluntarioei eta horiek eskaintzen dituzten zerbitzuei buruzko datuen bilduma sistematikoago bat egitea, eta

boluntariotza EUROSTATeko Estatistika Kontuen kategoria espezifiko gisa sartzearen alde dago boluntariotzaren balio ekonomikoa zehatz-mehatz aztertzeko.

- d. Gomendatzen du boluntariotzari buruzko ikerketa konparatiboak egitea EB osoan boluntariotzaren garapen-joerari, irismenari eta ezaugarriei buruzko datuak nazioko, eskualdeko eta tokiko mailan lortzeari begira. Horri esker, argi eta garbi identifikatuko dira azpiegiturarekin eta borondatezko jardurekin zerikusia duten kultura-arloko antzekotasunak eta desberdintasunak.
- e. Gomendatzen du EBren eskalan ikertzea boluntariotza tokiko eta eskualdeko mailan sustatzeko eta laguntzeko praktika onenen esperientziak ezartzeko. Ikerketaren ondorioen arabera, boluntariotzaren alorrean historian zehar esperientzia handiena duten zonek gainerako eskualde eta udalerriei lagun diezaiekete ekimen berriak sortzen.

3. 3. proposamena: Bestelako gai interesgarriak

- a. Enpresa Boluntariotza EGEren esparruan.
- b. Boluntariotza Birtuala. Teknologia Berriak.
- c. Adingabeen boluntariotza.
- d. Erakundeen errealitatea ezagutzea kalitatea eta irizpideak kudeatzeko erabiltzen diren sistemei dagokienez.
- e. Boluntariotzako erakundeetan dauden ordaindutako langileen eta boluntarioen arteko harremana.

6.- Finantziarioa eta prestakuntza

Irabazi-asmorik gabeko erakundeetan boluntariorik ez izatearekin batera, Diagnostikoan jasotzen den hurrengo eskaera garrantzitsuena boluntarioak nahiz erakundeak finantzatzeko eta prestatzeko eskaera da.

Boluntariotzaren II. Euskal Planak bi eskaera horiek Ildo Estrategiko bakar batean biltzen ditu. Gai horri dagokionez, gogoan izan 4. ondorioan aipatu duguna. Alde batetik, ezin dugu ahaztu Boluntariotzaren Plan bat dela, ez asoziazionismoa sustatzeko plan bat; hortaz, gai asko maila horretaraino jaisten ahalegindu gara, eta ahaleginak egin ditugu nagusitasuna ematen boluntarioei zuzenean eragiten dieten jardunak planteatzeko moduari.

Bestalde, ezin da aipatu gabe utzi boluntarioria erakundeen zati bat dela, eta ezin dela horretan eragin gainerakoak gurutzatu gabe.

Hori konpontzeko, beren laguntza-aginduak sartuz Boluntarioria II. Euskal Planean parte hartzen duten eragileei eskatu zaie honako irizpide hauetako bat edo gehiago betetzeko:


1. Irabazi-asmorik ez duten erakunde eskatzaileek nahitaez egon behar dute errolatuta Boluntarioria Erakunde Errolda Orokorrean. Hori ezinezkoa bada, erakunde hori badagoela jakinarazi ahal izango da.
2. Boluntarioria buruzko ikuspegia sartzea, garrantzizkoa delako irabazi-asmorik gabeko erakundeetan egiten duten lanari garrantzi handiagoa emateko eta lan hori onartzeko.
3. Boluntarioria buruzko datuak banakatzea irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurkezten dituzten proiektuetan.
4. Boluntarioria buruzko proiektu espezifikoak finantzatzea laguntzak emateko agindu orokorrenen barnean.

7.- Erakundeen artean koordinatzeko premia

Azkenik, Diagnostikotik atera daitekeen ondorioz garrantzitsua, 3. ildo Estrategikoarekin duen harremanari dagokionez, honako hau da: ekintza boluntarioa eratzen duten elementuak, tresnak eta gune komunak berrestu behar dira nahitaez.

Illo horretatik, honako hau ondoriozta daiteke:

1. 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, boluntarioei buruzkoa, boluntarioria EAEn arautzen duen esparrua da.
2. Boluntarioria Euskal Kontseilua gaiarekin zerikusia duten eragileak biltzen dituen organoa da.
3. 2008-2010 aldian ikuspegiaren koordinazioa sakonduko da bigarren planaren garapenerako onuragarriak diren sinergiak sortzeko, Plan Operatiboan ezarritako ekintza kopurua eta horien kalitatea handitzeko eta esku hartzen duten eragileen kopurua gehitzeko.



Taulan ikusten denaren arabera, arlo hau esku hartzen duten eragile asko dituen jokaleku konplexua da. Boluntariotzaren inguruan politika publiko efizienteago bat lortzea honako honen arabera izango da neurri handi batean: ahaleginen bikoiztasuna eta ekimenak gainjartzea saihesteko jardunak modu koordinatuan ezartzerakoan eragileek lor dezaketen ulertze-mailaren arabera.

3.- 2008-2010 aldiko PLAN OPERATIBOA.

3.1.- Sarrera

Zer da Plan Operatiboa?

Jarritako Ildo Estrategikoak eta Helburuak betetzeko ezarriko diren ekintzak biltzen dituen Planaren zatia da. Plana Diagnostikoko azalpena kontuan hartuta idatziko da, hau da, kontuan hartuta Plan Operatiboak izango duela ardura indarrak sustatzeko, ahuleziak desagerrarazteko, aukerak aprobetxatzeko eta mehatxuak mugatzeko. Betiere, gorago definitu diren lehentasun garrantzitsuenak kontuan hartuta, jakina; izan ere, Diagnostiko osoa bere gain hartzea nahitaezkoa izango litzateke.

Boluntariotzaren II. Euskal Plana 3 Ildo Estrategikoren, 6 Helburu Orokorren, 12 Helburu Espezifikoren eta 241 ekintzen inguruan egituratzen da. Horretaz gain, Plana nor edo nortzuk gauzatuko duen/duten definitzen du, baita nor edo nortzuk izango den/diren kolaboratzaileak eta programatutako ekintzak noiz gauzatu behar diren ere.

ILDO ESTRATEGIKOA	HELBURU OROKORRAK.	HELBURU ESPEZIFIKOAK.
EKINTZA BOLUNTARIOAREKIKO SENTIBERA ETA AKTIBOA DEN HERRITARTASUNA ERAIKITZEA.	SENTSIBILIZAZIOA ERAKARTZEA IKERKETA	GAZTEEN SENTSIBILIZAZIOA ETA BOLUNTARIOEN ERAKARPENA SUSTATZEA EAE-KO HEZKUNTZA EREMUETAN. BOLUNTARIOEN SENTSIBILIZAZIOA ETA ERAKARPENA SUSTATZEA GIZARTEAN ETA BOLUNTARIOTZAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ERAGILEEN ARTEAN. BOLUNTARIOEN SENTSIBILIZAZIOA ETA ERAKARPENA ETA ENPRESEN ETA IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN HARREMANA SUSTATZEA ENPRESA BOLUNTARIOTZAREN BITARTEZ. IKERKETA ETA EAE-KO BOLUNTARIOTZAREN EGOERAREN BENETAKO ERREALITATEAREN EZAGUTZA SUSTATZEA.
BOLUNTARIOTZAK ETORKIZUNEAN IZANGO DITUEN ERANTZUTEKO PRESTATUTA DAGOEN ELKARTE SARE DINAMIKOAREN GARAPENA SUSTATZEA.	LAGUNTZA ETA SUSTAPENA	BOLUNTARIOEK IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEETAN DUTEN ZEREGINA FINKATZEKO BABESA EMATEA EKINTZA BOLUNTARIOAREN KALITATEAN HOBEKUNTZA LORTZEKO. LAGUNTZA TEKNIKOA ETA EKONOMIKOA EMATEA IRAUNKORTASUNA ETA GARDENTASUNA HOBETZEKO, ETA IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN ANTOLAKETAREN MODERNIZAZIOAN AURRERA EGITEKO. BOLUNTARIOEI LAGUNTZA EMATEA PRESTAKUNTZA PROZESU GUZTIETAN. IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEI LAGUNTZA EMATEA PRESTAKUNTZA PROZESU GUZTIETAN.
DAUDEN BOLUNTARIOTZA GUNEA ERATZEA ETA SUSTATZEA BOLUNTARIOTZA OSATZEN DUTEN ERAGILEEN ERABATEKO KOORDINAZIORAKO.	KOORDINAZIOA	KOORDINAZIO KULTURA ETA EGUN DAGOEN ESPARRUA (17/1998 LEGEA, EKAINAREN 25ekoa, BOLUNTARIOEI BURUZKOA - BOLUNTARIOTZAREN II. EUSKAL PLANA, BOLUNTARIOTZAKO ERAKUNDEEN ERROLDA OROKORRA, BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA) SUSTATZEA, BOLUNTARIOTZAREN ALORREKO TRESNA ARAUTZAILE ETA EGITURATZAILE GISA. EGUN DAUDEN EGITURAK LAGUNTZEA ETA SUSTATZEA ETA BESTE BERRI BATZUK SORTZEA BOLUNTARIOTZAREN INGURUKO ERAGILE GUZTIAK ELKARREN ARTEAN ERLAZIONATZEKO, BAI AUTONOMIA ERKIDEGOAN, BAI EUROPAN. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (IKT)ak SUSTATZEA ETA LAGUNTZA EMATEA BOLUNTARIOTZAREN INGURUKO KOORDINAZIO PROZESUEN ARDATZ ERATZAILERAK GISA. KOORDINAZIO PROZESUAK HOBETZEA ADMINISTRAZIO MAILAN, BOLUNTARIOTZAREN SUSTAPENAREN ALDEKO SINERGIAK SORTZEKO, ETA HORREKIN AHALEGINEN BIKOIZTASUNA SAIHESTUZ.

Hortaz, esan daiteke Boluntariotzaren bigarren Euskal Planaren azken helburua boluntariotzaren jokalekuan dauden eragileen ekintzak lerrokatzea izango dela, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak 2008-2010 aldirako definituko duen baterako estrategiaren inguruan. Ekintza eta eragile horiek lagunduko dute hiru ildo estrategiko orokorren, sei helburu orokorren eta hamabi helburu espezifikoren inguruan proposatutako sei jomugak lortzen.

3.2.- Eragileen mapa

Boluntariotzaren I. Euskal Planaren esperientziak frogatu du eragile askok egiten dituztela boluntariotzarekin zerikusia dituzten ekintzak, edozein izanik ekintza horien adierazpenak eta jardun-eremuak. Lehenengo Planean eragile gisa zerrendatu direnei⁷ beste batzuk erants diezazkiekegu: ikastetxeak, unibertsitateak, komunikabideak, enpresak, eta abar; horiek guztiek protagonismo berezia izan dezakete edo izan lezakete datozen urteetan.

Ildo horretatik, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren nortasun-ezaugarria izango da eragile bakoitzaren berezitasunarekiko eta eragileak biltzen eta ordezkatzeko dituzten errealitateekiko izugarri adeitsua izatea, betiere kontuan hartuta eragile bakoitzak askatasun osoa duela gaiari buruzko politikak diseinatzeko. Hori bai, Plan hau Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan sortu denez gero, dauden ordezkariak osatutako Lan Batzordearen (hor **60 eragilek** baino gehiagok hartu dute parte zuzenean edo zeharka) bitartez, gainerako euskal herri-administrazioei eskatu zaie dokumentu honetan aurreikusitako estrategia beren estrategiatzat hartzea, beren eskaintza propioak diseinatzea aurreikusitako Ildo Estrategikoak aintzat hartuta, baina Helburu Orokorrak eta Espezifikoak beren eragin-eremuetako berezitasunetara egokituz.

Azkenik, eragile horiei eskatzen diegu estrategia hau Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan erabiliko duten estrategia propiotzat hartzea proposatutako ekintzak bateratzeko eta koordinatzeko foro egoki gisa.

⁷ Boluntarioak dituzten erakundeak eta horien sareak; boluntariotza-agentziak; Boluntariotzaren Euskal Kontseilua; Udalak eta beren taldeak; Foru Aldundiak; Eusko Jaurlaritza eta beste batzuk...

Era horretan, Boluntariotzaren II. Euskal Planak aurreikusitako ekintzak ezartzeko ardura izango dute bi eragile mota bereizten ditu:

1. Honako hauek izan daitezke eragile ARDURATSUAK:

- Eusko Jaurlaritzaren Sailak eta/edo
- Bere erakunde autonomoak eta/edo
- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua eta/edo
- Foru Aldundiak eta/edo
- Boluntariotzaren euskal agentziak.



2. Honako hauek izan daitezke eragile KOLABORATZAILEAK:

- o Eusko Jaurlaritzaren Sailak eta/edo
- o Bere erakunde autonomoak eta/edo
- o Boluntariotzaren Euskal Kontseilua
- o Jaurlaritzaren Sail batekin edo batzuekin eta/edo bere erakunde autonomoekin eta/edo Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin eta/edo Foru Aldundiekin elkarlanean ekintzak gauzatzen dituen eragile oro. Kategoria horretan Lehenengo Planean onartutako guzti-guztiak bildu daitezke, hala nola Eusko Jaurlaritza, Irabazi-asmorik gabeko Erakundeak; Foru Aldundiak; Udalak; Eudel eta Agentziak; baita ikastetxeak, unibertsitateak, enpresak eta komunikabideak ere, besteak beste.

Ondorengo taulak Boluntariotzaren II. Euskal Planaren (2008-2010) eragileen mapa osatzen duten aktoreen zerrenda dago:

ERAGILEA
BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA
EUSKO JAURLARITZA - ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA – GIZARTE ONGIZATE ZUZENDARITZA
1. Boluntariotzaren II. Euskal Planaren aurrekontu orokorra handitu da. Boluntariotzaren I. Euskal Planaren Azken balantzean 13.446.942,95 € bildu ziren; Boluntariotzaren II. Euskal Planerako, aldiz, 30.196.000,90 € aurreikusi dira. Neurri handi batean, laguntza-aginduetan diruz lagundutako jarduera eta programetan boluntariotza identifikatzeko egindako lanaren ondorio da igoera hori. Horren haritik, Eusko Jaurlaritza irizpide berri horren adierazgarri izan daiteke: Boluntariotzaren I. Euskal Planean, 2.107.070,38 €-ko partaidetza izan zuen; Boluntariotzaren II. Euskal Planean, aldiz, 17.418.523,00 €-eko partaidetza, guztiaren % 57,68ko partaidetza, beraz.
2. Boluntariotzaren II. Euskal Planean ekintzak ezartzen dituzten eragileen kopuruak ere gora egin du, Eusko Jaurlaritzari dagokionez bereziki, eta horrek ere zerikusia izan du aurrekontu-igoera horretan.
3. Foru Aldundiek 5.864.317,29 €-ko partaidetza izan zuten Boluntariotzaren I. Euskal Planean; Boluntariotzaren II. Euskal Planean, aldiz, 9.036.210,00 €-ko partaidetza izan dute, hau da, aurrekontu orokorraren % 29,93ko erantzukizuna. Aldundien aurrekontu-gorakada horren arrazoiak aldeztatik Eusko Jaurlaritzaren kasuan adierazitako berberak dira.
4. Boluntariotza-agentziek 975.891,41 €-ko ekarpena egin zuten I. Planean; II. ean, aldiz, 3.699.267,90 € ekarri dituzte guztira, hau da, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren 12,25 €-ko erantzukizuna guztira. Kasu horretan, lehen Planerako ezarritako programak bakarrik hartu ziren aintzat. Bigarrenerako, ordea, eragile horien jarduera osoak boluntariotza sustatzeko helburua duela hartu da kontuan, eta, horrenbestez, aurrekontu osoa zenbatu da.
5. Hala, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta agentziek Boluntariotzaren I. Euskal Planaren aurrekontuaren % 15,67ko, % 43,61eko eta % 7,26ko partaidetza izan zuten, hurrenez hurren. Boluntariotzaren II. Euskal Planari dagokionez, aldiz, % 57,68ko, % 29,93ko eta % 12,25eko balioa duten ekintzak ezarri dituzte, hurrenez hurren.

5.- EBALUAZIO SISTEMA.

Boluntariotzaren II. Euskal Planaren ebaluazio-sisteman hiru une berezi bereizten dira, jarraian zabaltzen diren bi ataletan koka daitezkeenak:

5.1.-Boluntariotzaren II. Euskal Planaren jarraipena

Plana gauzatu bitartean garatzen den prozesua da. Ebaluazioa, aldiz, une jakin batzuetan egin daiteke, plana landu eta ezartzeko prozesuan.

- Helburua: Ezarri beharreko ekintzen gauzatzeari buruzko informazioa biltzea, desbideratzeak ote dauden ikusteko eta programaren kudeaketa hobetzeko.

2009. urtean, halaber, jarraipen-sistema indartzeko lagungarri behar du, baita erabaki eta kudeaketa eraginkorrerako lagungarri ere. Neurketa hori oinarritzat hartuta, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren azken helburuetan ukitu batzuk egin daitezke.

- Ezaugarri nagusiak:
 - Barne-prozesua da,
 - Etengabe garatzen da gauzatzealdian, ekintzak planifikatutakoari jarraiki garatzen direla kontrolatzeko,
 - Kudeaketa- eta kontrol-prozesua da,
 - Planaren martxa kudeatzen du, denbora errealean,
 - Planaren gauzatzea eta ebaluazioa uztartzen ditu,
 - 2009an, Planaren jarraipen-esparruan bilduriko datuak aztertuko ditugu, ikuspegi kritiko batetik, eta lortu nahi diren helburuak pixkana-pixkana lortzen ote diren balioetsiko dugu.
 - 2009an, indarreko esku-hartzearen balioa aztertuko dugu
 - Erabakitako helburuen egokitasuna aztertuko dugu.

- 2009an, koherentzia egiaztatu behar dugu, adierazleen egokitasuna aztertu behar dugu, jarraipen-sistemaren funtzionamendua zaindu behar dugu, eta esku-hartzeen eraginkortasuna aztertu.
- Arduraduna:
 - Batetik, Boluntariotzaren II. Euskal Plana ezartzeko talde teknikoak, urte bakoitzean planak aurreikusitako ekintzen Gauzatze Balantzea landuko du. Gauzatze Balantze horretan honako hauek bilduko dira: jarduerazerranda, jarduerak gauzatzeko eskumeneko organoak eta laguntzaileak, gauzatutako finantziazioa eta jarduera horiei Planean dagozkien helburuak. Behin Balantzea egin ondoren, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluari aurkeztuko diogu, onar dezan.
- Aldizkakotasuna: Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak txosten hori onartu behar du, urtean behin, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren indarraldian.
- Tresna: Urteko jarraipena egiteko, informazioa biltzeko fitxa bat diseinatu behar da; gutxienez, honako eremu hauek edukiko ditu:

ERANTZUKIZUNA	PROGRAMATUTAKO EKINTZA
<ul style="list-style-type: none"> • Erakundea • Arduraduna • Kargua • Helbidea • E-maila • Telefono-zenbakia 	<ul style="list-style-type: none"> • Ekintzaren izena • Helburu Orokorra Boluntariotzaren II. Euskal Planari dagokionez • Helburu Espezifikoa Boluntariotzaren II. Euskal Planari dagokionez • Ekintzaren helburua • Programaren jardun-eremua • Programaren hartzailak • Boluntarioen esku-hartze espezifikoak • Ekintza gauzatu den edo ez • Aurrekontu-partida • Aurrekontua
<p>Gainera, kasu bakoitzaren eragileak ekintza ebaluatzeko ardura hartuko du bere gain, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren bitarteko eta azkeneko ebaluazio lantzeko lagungarri izango diren zenbait adierazle oinarritzat hartuta, ekintzak zehazten aurrera egin ahala zehaztuko direnak.</p>	

- Adierazleak: Jarraipen-adierazleak ezarriko dira (gauzatzea eta emaitzak), behin Boluntariotzaren II. Euskal Plana osatuko duten ekintzak diseinatu ondoren.
- Boluntariotzaren II. Euskal Planaren barruko ekintza:

1. ekintza	Ikerketa eta EAeko boluntariotzaren egoeraren benetako errealitatearen ezagutza sustatzea, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren jardueren jarraipenerako urteko txostena landuz eta zabalduz, plan horretan bilduriko jarraipen-adierazleei jarraiki.				
Arduradunak	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila - Gizarte Ongizateko Zuzendaritza Boluntariotzaren Euskal Kontseilua				
Laguntzaileak	Boluntariotzaren II. Euskal Plana ezartzen parte hartzen duten eragileak Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.				
Egutegia		2008	2008	2008	
		x	x	x	
Aurrekontua		0 €	0 €	0 €	
Jarraipen adierazleak	Adierazlea			Helburua	Lortua
	Argitaratutako eta banaturiko ale kopurua			1.500	
	Gogobetetako pertsonen %			> % 70	
	Pertsonen gogobetetze-maila			>7	
	Gogobetetakoen %, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko kideen artean			> % 70	
	Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko kideen gogobetetze-maila			>7	

Ekintza hori 1. Ildo estrategikoko 4. Helburu Espezifikoari lotzen zaio

Laburbilduta, , Boluntariotzaren II. Euskal Planaren jarraipen-ekintzak honako hauek dira:

ZERTARAKO?	ZER?	NOLA?	NOIZ?	ZEIN?
Desbideratze posibleak atzematea eta planaren kudeaketa hobetzea. Planaren jarraipena	Boluntariotzaren II. Euskal Planean aurreikusitako ekintzen jarraipena egingo da.	Ekintzen gauzatze-balantzea, jarraipen-adierazle kualitatibo eta kuantitatiboen bitartez.	Urtean behin, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren indarraldian zehar.	Boluntariotzaren II. Euskal Plana ezartzeko Teknikari Taldea Boluntariotzaren Euskal Kontseilua

5.2.-Boluntariotzaren II. Euskal Planaren ebaluazioa

- Boluntariotzaren II. Euskal Planaren azken ebaluazioa
 - Helburua: Lortu nahi ziren helburuak bete ote diren aztertu behar dugu, baita helburu horiek planari ote dagozkion ere.
 - Ezaugarri orokorrak: honako irizpide hauen arabera egingo dugu: efikazia, eraginkortasuna, estaldura, erabilera, zerbitzuaren edo programaren kalitatea eta gogobetetzea.
 - Arduraduna: Boluntariotzaren II. Euskal Plana ezartzeko Teknikari Taldea eta Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.
 - Aldizkakotasuna: Boluntariotzaren II. Euskal Plana amaitzerakoan
 - Ebaluazio-adierazleak: emaitzen eta eraginaren adierazleak, behin Boluntariotzaren II. Euskal Plana osatuko duten ekintzak diseinatu ondoren.
 - Boluntariotzaren II. Euskal Planaren barruko ekintza:

5. ekintza	Ikerketa eta EAeko boluntariotzaren egoeraren benetako errealitatearen ezagutza sustatzea, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren azken ebaluazio-txostena landuz, inprimatuz eta zabalduz, plan horretan bilduriko jarraipeneko, emaitzako eta eragineko adierazleei jarraiki.				
Arduradunak	Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Salla - Gizarte Ongizateko Zuzendaritza Boluntariotzaren Euskal Kontseilua				
Laguntzaileak	Boluntariotzaren II. Euskal Plana ezartzen parte hartzen duten eragileak Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia				
Egutegia				2010	
Aurrekontua				x	
				0 €	
Jarraipen-adierazleak	Adierazlea			Helburua	Lortua
	Argitaratutako eta banatutako ale kopurua			1.500	
	Gogobetetako pertsonen %			> % 70	
	Pertsonen gogobetetze-maila			>7	
	Gogobetetakoen %, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko kideen artean			> % 70	
	Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko kideen gogobetetze-maila			>7	

Ekintza hori 1. Ildo Estrategikoko 4. Helburu Espezifikoari lotzen zaio

Laburbilduta, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren jarraipen-ekintzak honako hauek dira:

ZERTARAKO?	ZER?	NOLA?	NOIZ?	ZEIN?
Lortu nahi ziren helburuak bete ote diren aztertu behar dugu, baita helburu horiek planari ote dagozkion ere.	Boluntariotzaren II. Euskal Planaren azken ebaluazioa	Azken ebaluazioa, honako irizpide hauen arabera: efikazia, eraginkortasuna, estaldura, erabilera, zerbitzuaren edo programaren kalitatea eta gogobetetzea.	Boluntariotzaren II. Euskal Plana amaitzea.	Boluntariotzaren II. Euskal Plana ezartzeko Teknikari Taldea eta Boluntariotzaren Euskal Kontseilua

5.3- Boluntariotzaren II. Euskal Planaren ebaluazio-adierazleak eta helburuen kuantifikazioa.

Ebaluazio-sistema adierazleak ezarriz eta helburuak kuantifikatuz antolatu dugu, eta sistema hori berritzailea da horrelako erakunde-planei dagokienez.

Hala, Boluntariotzaren II. Euskal Planak zenbait adierazle bildu ditu Ildo Estrategiko, Helburu Orokor eta Helburu Espezifikoko bakoitzerako, behin Planaren iraunaldia amaitutakoan diseinatutako ekintzek boluntariotzan izan duten eragina balioesteko lagungarri izango direnak.

Gogoratzekoa da funtsezko bi informazio-iturri erabiliko ditugula adierazle horien jarraipena egiteko. Batetik, EAEko Boluntariotzaren Egoerari buruzko Txostena, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak urtero egiten duena. Gogoratzekoa da, halaber, txosten hori Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean erroldaturiko erakundeek eskainitako informazioan oinarritzen dela, eta, beraz, erakundeek horrelako ekimenetan parte hartzea funtsezkotzat jotzen dugula⁸.

Bestetik, Estatistikaren Euskal Institutua ere baliatuko dugu Boluntariotzaren II. Euskal Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko bigarren informazio-iturri gisa.

Jarraian taulak aurkezten ditugu, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren iraunaldian neurtuko diren eragin-adierazleak era helburuak barne:

⁸ Informazio gehiago: <http://www.euskadi.net/voluntariado>

1. ILDO ESTRATEGIKOA: Ekintza boluntarioarekiko sentibera eta aktiboa izango den herritartasuna eraikitzea.		
HELBURU OROKORRA	ADIERAZLEAK	HELBURUA
SENTSIBILIZAZIOA BILKETA IKERKETA	Euskal Autonomia Erkidegoan boluntariotza-programetan parte hartzen duten pertsonen kopuruaren urteko igoera.	% 8 urtean
	EAEko irabazi-asmorik gabeko erakundeetako bazkide kopuruaren igoera.	% 6
	Egungo formatuan Helburu Espezifiko horretarako aurreikusitako ekintzen % 100 garatzea.	% 100
	Boluntariotzako Erakundeen Errola Orokorrean erregistraturiko irabazi-asmorik gabeko erakundeen % 100ek garatu beharreko jardueri buruzko informazioa jasotzea.	% 100
	Planak sorturiko inertiaren eraginez Boluntariotzaren II. Euskal Planean parte hartzen duten eragileek abian jarritako ekimen berrien kopuruaren igoera.	2 urtean
HELBURU ESPEZIFIKOAK	ADIERAZLEAK	HELBURUA
GAZTEEN SENTSIBILIZAZIOA ETA BOLUNTARIOEN ERAKARPENA SUSTATZEA EAEKO HEZKUNTZA EREMUETAN.	EAEko Boluntariotzako Erakundeen Errola Orokorrean errolaturiko gazteen (gazteek osaturikoak) irabazi-asmorik gabeko erakundeen kopuruaren igoera.	% 15
	EAEko irabazi-asmorik gabeko erakundeetako bazkide gazteen (18-30 urtekoak) kopuruaren igoera.	% 17
	Euskal Autonomia Erkidegoan boluntariotzari buruzko informazioa jasotzen duten gazteen kopuruaren urteko igoera.	5.000
	Euskal Autonomia Erkidegoan boluntariotza-programetan parte hartzen duten gazteen kopuruaren urteko igoera.	% 40
	Irabazi-asmorik gabeko erakundeen baitan gazteek boluntariotza-zereginetan batez beste emandako ordu kopuruaren urteko igoera.	1. neurketa 2008an
	Irabazi-asmorik gabeko erakundeen baitan gazteek boluntariotza-zereginetan batez beste emandako urte kopurua.	1. neurketa 2008an
	Boluntario gazteen (18-30) ehunekoaren igoera, 18-30 urteko biztanleria osoa aintzat hartuta.	% 3
	Ikasle boluntarioen ehunekoaren igoera, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle guztiak aintzat hartuta.	% 3,50
	Gazte bazkideen ehunekoaren igoera, EAEko gazte guztiak aintzat hartuta.	% 11
BOLUNTARIOEN SENTSIBILIZAZIOA ETA ERAKARPENA SUSTATZEA GIZARTEAN ETA BOLUNTARIOTZAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ERAGILEEN ARTEAN.	EAEko Boluntariotzako Erakundeen Errola Orokorrean errolaturiko irabazi-asmorik gabeko erakundeen kopuruaren igoera.	476 (65/urtean)
	EAEko irabazi-asmorik gabeko erakundeetako bazkide kopuruaren igoera adin talde guztietan.	% 87
	Euskal Autonomia Erkidegoan boluntariotzari buruzko informazioa jasotzen duten pertsonen kopuruaren urteko igoera.	50.000
	Euskal Autonomia Erkidegoan boluntariotza-programetan parte hartzen duten pertsonen kopuruaren urteko igoera adin talde bakoitzean.	% 65
	Irabazi Asmorik gabeko Erakundeen baitan boluntariotza-zereginetan astean sei ordu baino gehiago ematen dituzten pertsonen ehunekoaren urteko igoera.	1. neurketa 2008an
	Irabazi Asmorik gabeko Erakundeen baitan boluntariotza-zereginetan batez beste emandako urtean kopuruaren igoera.	1. neurketa 2008an
	30 urtez gorako boluntarioen ehunekoaren igoera, 30 urtez gorako biztanleria osoa aintzat hartuta.	% 1,04
	Bazkideen ehunekoaren igoera, EAEko biztanleria osoa aintzat hartuta.	% 12
	65 urtez gorako boluntarioen ehunekoaren igoera, Euskal Autonomia Erkidegoko adineko guztiak aintzat hartuta.	% 2
	65 urtez gorako boluntarioen ehunekoaren igoera Boluntariotzako Erakundeen Errola orokorrean errolaturiko Erakundeetan.	% 18
BOLUNTARIOEN SENTSIBILIZAZIOA ETA ERAKARPENA ETA ENPRESEN ETA IRABAZI	EAEko irabazi-asmorik gabeko erakundeetako 65 urtez gorako bazkide kopuruaren igoera.	% 11,50
	65 urtez gorako bazkideen ehunekoaren igoera, EAEko 65 urtez gorako biztanleria osoa aintzat hartuta.	% 7
	Enpresa Boluntariotzarekin zerikusia duten kontzeptuei buruzko informazioa jaso duten irabazi-asmorik gabeko erakundeen kopurua.	Errolaturikoen % 100
	Enpresa Boluntariotzarekin zerikusia duten kontzeptuei buruzko informazioa jaso duten enpresen kopurua.	1945 (50 langile baino

ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN HARREMANA SUSTATZEA ENPRESA BOLUNTARIOTZAREN BITARTEZ.		gehiagokoak)
	Enpresa Boluntariotzarekin zerikusia duten programetan parte hartzen duten irabazi-asmorik gabeko erakundeen kopurua.	1. neurketa 2008an
	Enpresa Boluntariotzarekin zerikusia duten programetan parte hartzen duten enpresen kopurua.	1. neurketa 2008an
IKERKETA ETA EAEKO BOLUNTARIOTZAREN EGOERAREN BENETAKO ERREALITATEAREN EZAGUTZA SUSTATZEA.	Boluntariotzaren II. Euskal Planean bilduriko adierazle kopuruaren igoera, landuriko azterlanak oinarritzat hartuta.	2 urtean
	Irabazi-asmorik gabeko erakundeek Plana garatu bitartean eginiko azterlanekiko erakutsitako gogobetetze-maila.	>7
	Irabazi-asmorik gabeko erakundeetako arduradunen artean, Plana garatu bitartean eginiko azterlanekiko gogobeteta ageri direnen ehunekoa.	% 70
	Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko kideen artean, Plana garatu bitartean eginiko azterlanekiko gogobeteta ageri direnen ehunekoa.	% 70
	Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko kideen artean, Plana garatu bitartean eginiko azterlanekiko gogobeteta ageri direnen ehunekoa.	>7
	Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean erroldaturiko irabazi-asmorik gabeko erakundeen benetako eta sakoneko ezagutza lortzea, landuriko azterlanak oinarritzat hartuta.	% 100
Boluntariotzaren II. Euskal Planaren iraunaldian datuak Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean eguneratzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeen % 100	% 100	

2. ILDO ESTRATEGIKOA:		
Boluntariotzak etorkizunean izango dituen erronkei erantzuteko prestatuta dagoen elkarte-sare dinamikoaren garapena sustatzea.		
HELBURU OROKORRA	ADIERAZLEAK	HELBURUA
Irabazi-asmorik gabeko erakundeek eta boluntarioen JARDUERA BULTZATU ETA SUSTATZEA	Erroldatuta dauden eta boluntariotzaren barne-estatutua duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek kopuruaren igoera.	% 50
	Egungo formatuan Helburu Espezifiko horretarako aurreikusitako ekintzen % 100 garatzea.	% 100
	Boluntariotzako Erakundeek Errolda Orokorrean erregistraturiko irabazi-asmorik gabeko erakundeek % 100ek garatu beharreko jardueri buruzko informazioa jasotzea.	% 100
	Planak sorturiko inertiaren eraginez Boluntariotzaren II. Euskal Planean parte hartzen duten eragileek abian jarritako ekimen berrien kopuruaren igoera.	2 urtean
HELBURU ESPEZIFIKOAK	ADIERAZLEAK	HELBURUA
BOLUNTARIOEK IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEETAN DUTEN ZEREGINA FINKATZEKO BABESA EMATEA EKINTZA BOLUNTARIOAREN KALITATEAN HOBEKUNTZA LORTZEKO.	Boluntariotzako Erakundeek Errolda Orokorrean erregistraturiko irabazi-asmorik gabeko erakundeek % 100ek boluntarioak aseguratuta edukitzea.	% 100
	Boluntariotzako Erakundeek Errolda Orokorrean erroldatuta dauden eta boluntariotzaren arduraduna duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek kopuruaren igoera.	% 90
	Herri Administrazioaren diru-laguntza politikarekin gogobeteta dauden arduradunen ehunekoaren igoera.	> % 70
	Irabazi-asmorik gabeko erakundeetako arduradunek Herri Administrazioaren diru-laguntza politikarekiko erakutsitako gogobetetze-maila.	>7
	Beren erakundeetan zuzentze-zereginetan parte hartzen duten boluntarioen ehunekoaren igoera.	% 16
	Beren erakundeetan zuzentze-zereginetan parte hartzen duten emakume boluntarioen ehunekoaren igoera.	1. neurketa 2008an
LAGUNTZA TEKNIKO ETA EKONOMIKOA EMATEA IRAUNKORTASUNA ETA GARDENTASUNA HOBETZEKO, ETA IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN ANTOLAKETAREN MODERNIZAZIOAN AURRERA EGITEKO.	Herri Administrazioaren diru-laguntzak jasotzen dituzten Irabazi Asmorik gabeko Erakundeek kopurua.	1. neurketa 2008an
	Boluntariotzako Erakundeek Errolda Orokorrean erroldaturiko Irabazi Asmorik gabeko Erakundeek jardueran zuzenean baliatzen duten pertsonen kopurua.	5.000 urtean
	Herri Administrazioaren diru-laguntzetan aurreikusitako / gauzaturiko aurrekontua guztira.	% 100
	Eginiko eta ebaluatutako programa kopurua.	% 100
	Herri Administrazioaren diru-laguntza politikarekin gogobeteta dauden arduradunen ehunekoaren igoera.	> % 70
	Irabazi-asmorik gabeko erakundeetako arduradunek Herri Administrazioaren diru-laguntza politikarekiko erakutsitako gogobetetze-maila.	>7
BOLUNTARIOEI LAGUNTZA EMATEA PRESTAKUNTZA PROZESU GUZTIETAN.	Herri Administrazioak diruz lagundutako proiektuei laguntzen dieten boluntarioen kopurua.	1. neurketa 2008an
	Prestaturiko pertsona kopuruaren igoera.	400
	Jasotako prestakuntzarekiko gogobeteta ageri diren bertaratuen ehunekoa igotzea.	> % 70
	Bertaratuek jasotako prestakuntzarekiko erakutsitako gogobetetze-maila.	>7
IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEI LAGUNTZA EMATEA PRESTAKUNTZA PROZESU GUZTIETAN.	Prestaturiko erakunde kopuruaren igoera.	160
	Jasotako prestakuntzarekiko gogobeteta ageri diren arduradunen ehunekoaren igoera.	> % 70
	Irabazi Asmorik gabeko Erakundeetako arduradunek jasotako prestakuntzarekiko erakutsitako gogobetetze-maila.	>7

3. ILDO ESTRATEGIKOA:		
Boluntariotza osatzen duten eragileak erabat koordinatzeko dauden boluntariotzaguneak eratu eta sustatzea		
HELBURU OROKORRA	ADIERAZLEAK	HELBURUA
KOORDINAZIOA	Egungo formatuan Helburu Espezifiko horretarako aurreikusitako ekintzen % 100 garatzea.	% 100
	Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean erregistraturiko irabazi-asmorik gabeko erakundeen % 100ek garatu beharreko jardueri buruzko informazioa jasotzea.	% 100
	Planak sorturiko inertiaren eraginez Boluntariotzaren II. Euskal Planean parte hartzen duten eragileek abian jarritako ekimen berrien kopuruaren igoera.	2 urtean
	Hedabideetan, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin eta Boluntariotzaren II. Euskal Planarekin zerikusia duten berrien agerpen kopurua igotzea.	10 urtean
	Boluntariotzaren II. Euskal Planera ekintza berriak biltzea, Boluntariotzaren II. Euskal Planaren lana oinarritzat hartuta.	1 urtean
	Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko kideek Boluntariotzaren II. Euskal Planean planteaturiko zabaltze- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea..	3 urtean
HELBURU ESPEZIFIKOAK	ADIERAZLEAK	HELBURUA
KOORDINAZIO KULTURA ETA EGUN DAGOEN ESPARRUA (17/1998 LEGEA, EKAINAREN 25ekoa, BOLUNTARIOEI BURUZKOA - BOLUNTARIOTZAREN II. EUSKAL PLANA, BOLUNTARIOTZAKO ERAKUNDEEN ERROLDA OROKORRA, BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA) SUSTATZEA, BOLUNTARIOTZAREN ALORREKO TRESNA ARAUTZAILE ETA EGITURATZAILE GISA.	EAEko Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean erroldaturiko irabazi-asmorik gabeko erakundeen kopuruaren igoera.	476 (65/urtean)
	EAEan duten jardun-eremuaren arabera Erakundeen Errolda Orokorrean erroldaturiko irabazi-asmorik gabeko erakundeen kopuruaren igoera.	% 3
	Erroldatuta dauden eta boluntariotzaren barne-estatutua duten irabazi-asmorik gabeko erakundeen kopuruaren igoera.	% 50
	Boluntarioak aseguratuta dituzten erroldaturiko irabazi-asmorik gabeko erakundeen kopuruaren igoera.	% 100
	Boluntariotzako Erakundeen errolda orokorrean erroldatuta dauden eta erakundeko pertsona guztien % 75etik gora boluntario duten irabazi-asmorik gabeko erakundeen kopuruaren igoera.	% 85
	Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean erroldatuta dauden eta Boluntariotzaren II. Euskal Planaren (2007-2010) ale bat jasotzen duten erakundeen kopuruaren igoera.	% 100
EGUN DAUDEN EGITURAK LAGUNTZEA ETA SUSTATZEA ETA BESTE BERRI BATZUK SORTZEA BOLUNTARIOTZAREN INGURUKO ERAGILE GUZTIAK ELKARREN ARTEAN ERLAZIONATZEKO, BAI AUTONOMIA ERKIDEGOAN, BAI EUROPAN.	Irabazi-asmorik gabeko erakundeetako arduradunek Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren jarduerarekiko erakutsitako gogobetetze-maila.	>7
	Irabazi-asmorik gabeko erakundeetako arduradunek Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren jarduerarekiko erakutsitako gogobetetze-maila.	% 70
INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK (IKTak) SUSTATZEA ETA LAGUNTZA EMATEA BOLUNTARIOTZAREN INGURUKO KOORDINAZIO PROZESUEN ARDATZ ERATZAILE GISA.	Zerbitzuetako erabiltzaileek boluntariotza koordinatzeko haien esku utzitako tresnekiko erakutsitako gogobetetze-maila.	>7
	Zerbitzuetako erabiltzaileek haien esku utzitako tresnekiko erakutsitako gogobetetze-ehunekoa.	% 70
KOORDINAZIO PROZESUAK HOBETZEA ADMINISTRAZIO MAILAN, BOLUNTARIOTZAREN SUSTAPENAREN ALDEKO SINERGIAK SORTZEKO, ETA HORREKIN AHALEGINEN BIKOIZTASUNA SAIHESTUZ.	Boluntariotzaren II. Euskal Planean parte hartzen duten herri-administrazio eragileen % 100ek Boluntariotzaren III. Euskal Planean parte hartzeko interesa azaltzea.	% 100

I. eranskina – metodologia eta parte-hartzea

DIAGNOSTIKO PARTE-HARTZAILEA

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko otsailaren 18ko 30/2003 Dekretuaren xedapen gehigarriak *"Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren esku uzten du Boluntariotzaren Euskal Plana egitea; Kontseilu horrek dagokion Sailean aurkeztuko du plana, Gobernu Kontseiluak onar dezan. Era berean, Planaren jarraipenean eta ebaluazioan parte hartuko du, eta Planaren ildo estrategikoak zein helburuak garatzeari eta betearazterik buruzko txostenak eta proposamenak egingo ditu."*

Boluntariotzaren II. Euskal Plana lantzeko prozesuan duen parte-hartzea handitzeko helburuarekin, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak Lan Batzorde misto bat sortzeko erabakia hartu du, Kontseiluko kideek eta bestelako interes-taldeek osaturikoa.

Planaren ekintzaren benetako onuradunek hasiera batetik Planean parte hartzea lortu nahi izan dugu. Horretarako, Plana lantzen hasi zen uneaz geroztik, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak, Batzorde Mistoarekin batera, ahalik eta informaziorik gehien eta askotarikoena biltzeko mekanismo egokiak sortu ditu, jarraian ikusiko dugunez.

FASEAK ETA JARDUNAK

Boluntariotzaren II. Euskal Plana lantzeko prozesua 5 fasetan garatu da: diagnostikoa, gizarteratzea, idazkuntza, plan operatiboa zehaztea, eta izapidetzea eta onartzea.

I. FASEA - DIAGNOSTIKOA

Aldia: 2006ko otsaila - 2006ko apirila

Fasearen helburua: EAEko boluntariotzaren egoerari buruzko Diagnostiko Zirriborroa lantzea.

Lortutako emaitzak:

- *AMIA* agiria
- *Boluntariotzaren II. Euskal Planaren Helburu Orokorrak* agiria
- *Jardun Eremu Handiak eta horien Helburu Espezifikoak* agiria

Lan-ekintzak:

- Batzordearen 2 lan-bilera, 2006-02-24an eta 2006-03-31n
- Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren bilera bat, 2006-03-17an.
- Idazkuntza-taldeko barne-bilerak.

Boluntariotzaren II. Euskal Plana lantzeko Batzordearen lan-saioei buruzko alderdi interesgarriak:

IZENA	EGUNA	HELBURUA	GOGOBEETZE BATEZBESTEKOA
Boluntariotzaren II. Euskal Plana Lantzeko Batzordearen 1. bilera	2006-03-03	1. Boluntariotzaren II. Euskal Planaren oinarritzko printzipioak ezartzea: adostasuna, konpromisoa, parte-hartzea eta operatibitatea. 2. Boluntariotzaren II. Euskal Plana lantzeko estrategia honako lau fase hauetan egituratu da: diagnostikoa, gizarteratzea, zirriborroak lantzea eta onartzea. 3. EAEko boluntariotzaren egoeraren AMIA Diagnostikora hurbiltzea.	7.42
Boluntariotzaren II. Euskal Plana Lantzeko Batzordearen 2. bilera	2006.03.31	1. EAEko boluntariotzaren egoeraren AMIA Diagnostikoa berraztertzea. 2. Boluntariotzaren II. Euskal Planaren Eremuak eta Helburuak zehaztea.	6.98

II. FASEA – GIZARTERATZEA

Aldia: 2006ko apirila - 2006ko maiatza

Fasearen helburua: Batzordeak landuriko Diagnostiko Zirriborroari ekarpenak egitea, ahalik eta ekarpen gehien lortuz ahalik eta eragile gehienen parte-hartzearekin.

Lortutako emaitzak:

- *AMIA* agiria, kontrastatua.
- *Helburu orokorrak* agiria, kontrastatua.
- *Jardun-eremu handiak eta helburu espezifikoak* agiria, kontrastatua
- *Boluntariotzaren II. Euskal Planaren ekintza-ildoak* zirriborro-agiria.

Lan-ekintzak:

- Irabazi Asmorik gabeko Erakundeekiko tailerrak (bat Lurralde Historiko bakoitzean).
- Udalbatzekiko elkarrizketa pertsonalak. Zehazkiago, Eibarko eta Irungo Udalekin elkarrizketatu gara.
- Diagnostiko Zirriborroa berriz ere lantzea, tailer eta lan-jardunaldietan bilduriko ekarpenak idazkuntza-taldearen barne-bileretan integratuz.

Gizarte Zibilaren erakundeekiko Tailerrei buruzko alderdi interesgarriak:

IZENA	EGUNA	HELBURUA	ERAKUNDE KOPURUA	BERTARATUEN KOPURUA	GOGOBEKETZE BATEZBESTEKOA
Bizkaiko tailerra	2006-05-09	1. EAEko boluntariotzaren egoeraren AMIA Diagnostikoa irakurtzea.	16	24	6.86
Arabako tailerra	2006-05-12	2. Ekarpenak egitea eta AMIA agiriaren alderdirik garrantzikoak mugatzea.	5	5	7.27
Gipuzkoako tailerra	2006-05-17	3. Ekintza Ildoak proposatzea, Eremu Orokorrak oinarritzat hartuta.	10	27	7.72

III. FASEA – ZIRRIBORROAK LANTZEA

Aldia: 2006ko maiatza - 2006ko ekaina

Fasearen helburua: Tailerretan bilduriko ekarpenak integratzea, Diagnostiko Zirriborroa Boluntariotzaren II. Euskal Planaren I. Zirriborro bihurtzeko.

Lortutako emaitzak:

- Boluntariotzaren II. Euskal Planaren lehen Zirriborroa lantzea.

Lan-ekintzak:

- Boluntariotzaren II. Euskal Plana Lantzeko Batzordearen lan-bilera, 2006-06-16an.
- Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren bilera bat, 2006-06-30ean.
- Idazkuntza-taldeko barne-bilerak.

Boluntariotzaren II. Euskal Plana Lantzeko Batzordearen lan-saioei buruzko alderdi interesgarriak:

IZENA	EGUNA	HELBURUA	GOGOBEETZE BATEZBESTEKOA
Boluntariotzaren II. Euskal Plana Lantzeko Batzordearen 3. bilera	2006/06/16	1. Tailerren fasearen laburpena. 2. Landutako dokumentazioa gizarteratzea: planaren iraupena, aurkibidea, diagnostikoa, helburu orokorrak eta espezifikoak zehaztea, aurrekontuak eta ebaluazioa.	8.12

IV. FASEA – 2007-2010EKO PLAN OPERATIBOA GARATZEA

Aldia: 2006ko uztaila – 2008ko ekaina

Fasearen helburua: Boluntariotzaren II. Euskal Planean garatu beharreko ekintzak zehaztea.

Lortutako emaitzak:

- Gizarte Ongizateko Zuzendaritzari dagozkien ekintzak zehaztea
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako gainerako Zuzendaritzari dagozkien ekintzak zehaztea.
- Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan ordezkariak duten Eusko Jaurlaritzaren Sailei dagozkien ekintzak zehaztea.
- Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan ordezkariak ez duten Eusko Jaurlaritzaren Sailei dagozkien ekintzak zehaztea.
- Euskal boluntariotza-jokalekuan ageri diren bestelako eragileek dagozkien ekintzak zehaztea.

Lan-ekintzak:

- Elkarriketa pertsonalak.
- Barne-lana. Idazkuntza-taldeko aldizkako bilerak.

V. FASEA – EUSKO JAURLARITZAK IZAPIDETZEA ETA ONARTZEA

Aldia: 2007ko urria – 2007ko Azaroa

Lan-ekintzak:

- Eusko Jaurlaritzaren Koordinazio Zuzendaritzari Zirriborroa bidaltzea.
- Boluntariotzaren Euskal Kontseiluari aurkeztea.
- Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztea

ERAGILEEN MAPA

Jarraian, Boluntariotzaren II. Euskal Plana lantzeko prozesuan lagundu duten eragileen zerrenda aurkezten dizuegu.

o Boluntariotzaren II. Euskal Plana Lantzeko Batzordeko kideak

BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA	BESTE AGENTE BATZUK
ARABAKO FORU ALDUNDIA	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA	EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUA
EUSKAL HERRIKO GURUTZE GORRIA	MONDRAGON UNIBERTSITATEA
BASKONIA FUNDAZIOA	LA CAIXA
EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN SAILA	EUSKO JAURLARITZAREN HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ETA HARREMAN INSTITUZIONALETARAKO SAILBURUORDETZAREN HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ZUZENDARITZA
GORABIDE ELKARTEA	DONOSTIAKO UDALA
EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA	BILBOKO UDALA
ELIKAGAI BANKUA ELKARTEA	ERDU AGENTZIA
	BOLUNTA AGENTZIA
	GIZALDE AGENTZIA

o Tailerretako parte-hartzaileak. Beheko koadroan, fase honetan parte hartu duten Irabazi Asmorik gabeko Erakundeak zerrendatzen dira:

TAILERRA	ERAKUNDEA
Bizkaiko tailerra	Down Syndromearen Fundazioa
	ONCE
	Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzeko Elkartea
	Gizatiar Emakume Elkartea
	"Etxeko – Andre" Etxekoandre eta Kontsumitzaileen Probintzia Elkartea
	Adsis Fundazioa
	Elkarbanatuz Elkartea
	Minbiziaren aurkako Espainiako Elkartea
	UNICEF Euskadi
	Kulturaren Sozial Berrikuntza Fundazioa
	Manos Unidas. Gosearen Aurkako Kanpaina
	Asociación Vasca de la Familia Sendia
	Guraso Bakarreko Familien Elkartea
	Bizkaiko Gazteriaren Euskal Kontseilua
Bilboko Caritas	
Bolunta Agentzia	
Arabako tailerra	Arabako Hiesaren Aurkako Batzordea
	Gasteizko Elizbarrutiko Caritas
	Manos Unidas
	Arabako Gazteriaren Euskal Kontseilua
	Erdu Agentzia

Gipuzkoako tailerra	Biztu. Eibarko Erretiratu eta Pentsiodunen Koordinakundea
	Ekintza Dasalud
	DYA Gipuzkoa
	Gipuzkoako Gurutze Gorria
	Beroa Gipuzkoako Familia Abegitsuen Elkartea
	Gipuzkoako Caritas
	Euskal Senior Laguntzaileak
	Gipuzkoako Gorren Elkartea
	Hezkide Eskola
	Gizalde Agentzia

- **Elkarrizketa pertsonalak.** Modalitate hau erabili da udalbatzen iritzia jasotzeko. Zehazkiago, Eibarko eta Irungo Udalekin elkarrizketatu gara.
- **Buletin elektroniko bidezko ekarpenak.** Parte-hartze bitarteko honen bitartez, zenbait pertsonak eta erakundek hartu dute parte:
 - DYA Gipuzkoa
 - Gizalde Boluntariotza Gipuzkoa
 - Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritza
- **Boluntariotzaren II. Euskal Planaren Plan Operatiboan ekintzak ezartzen dituzten eragileak.**

ERAGILEA
BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA
EUSKO JAURLARITZA -- ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA – GIZARTE ONGIZATEKO ZUZENDARITZA
EUSKO JAURLARITZA – ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA – HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ZUZENDARITZA
EUSKO JAURLARITZA – ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA – INMIGRAZIO ZUZENDARITZA
EUSKO JAURLARITZA – ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA – GARAPEN LANKIDETZAKO ZUZENDARITZA
EUSKO JAURLARITZA – ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA – DROGA GAIETAKO ZUZENDARITZA
EUSKO JAURLARITZA - HERRIZAINGO SAILA
EUSKO JAURLARITZA - OSASUN SAILA
EUSKO JAURLARITZA - INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA
EUSKO JAURLARITZA – KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILA - GAZTERIA ETA GIZARTE EKINTZA ZUZENDARITZA
EUSKO JAURLARITZA – JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA – ZIGOR BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA
EUSKO JAURLARITZA – JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA – JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARITZA
ARABAKO FORU ALDUNDIA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
EUSTAT
EMAKUNDE - EMAKUMEAREN EUSKAL INSTITUTUA
EUSKO JAURLARITZA – ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIA
UNIBERTSITATEAK
EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA FUNDAZIOA
ERDU – GASTEIZKO UDALAREN ELKARTEENTZAKO ETA BOLUNTARIOTZARAKO AGENTZIA

BOLUNTA – BOLUNTARIOTZARAKO ETA ELKARTEENTZAKO AGENTZIA
GIZALDE – BOLUNTARIOTZA. GIPUZKOA
EUDEL
IKASTETXEAK
IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK
ENPRESAK
SINDIKATUAK
KOOPERATIBAK
PATRONALA

TRESNAK

Aldez aurretik adierazi dugun bezala, Boluntariotzaren II. Euskal Plana lantzerakoan ahalik eta parte-hartze zabalena lortzen ahalegindu gara. Hori lortze aldera, honako tresna hauek sortu ditugu, informatzeko, zabaltzeko eta parte hartzeko:

1. **Buletin elektronikoa** bat, batetik, plana lantzean izandako aurrerapenen berri emango duena, eta bestetik, boluntariotzarekin zerikusia duten eragile guztiek (boluntariotzako erakundeak, sindikatuak, alderdi politikoak eta hirugarren sektorea ordezkatzen duten erakundeak) Boluntariotzaren II. Euskal Plana Lantzeko Batzordeari egin nahi dizkieten ekarpen guztiak jasotzeko gai izango dena. Horrekin lortu nahi dugu, halaber, erakundeek boluntarioei buletin hori bidaltzea.



1. buletina
2006ko martxoa



2. buletina
2006ko apirila



3. buletina
2006ko uztaila

2. Boluntariotzaren II. Euskal Planari buruzko **“banner”** edo publizitate-grafiko informatiko bat, zenbait web-orritan ipiniz herritarrek planean parte har dezaten eta plana gehiago zabal dadin.



3. Web-orria: <http://www.euskadi.net/voluntariado> - <http://www.euskadi.net/boluntariotza>

DOKUMENTUAK / BIBLIOGRAFIA

1. LESTER, M. et al.: *Global Civil Society: Dimensions of the Non Profit Sector*, John Hopkins Center for Civil Society Studies, Baltimore, 1999.
1. SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa: *Manual de Evaluación de Planes y Programas de Juventud*, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa, Donostia, 2002.
2. Ados Consulting Ikertaldea SL: *Estudio sobre las Relaciones entre la Administración, el Asociacionismo y la Promoción de la Participación. Diagnóstico*, Vitoria, Gasteizko Udala.
3. Bolunta. Agencia para las Asociaciones y el Voluntariado: *Evolución del Asociacionismo en Vizcaya (1996-2005)*, Bolunta. Agencia para las Asociaciones y el Voluntariado, Bilbo, 2006.
4. CIDEK Ekonomia, Lana eta Lanbide Prestakuntzako arazoei buruzko Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa: "El Tercer Sector. Una Visión Cuantitativa y Cualitativa" in Cuadernos de Trabajo 39, Donostia, 2004.
5. VALOR MARTÍNEZ, Carmen; MERINO DE DIEGO, Amparo: *La relación ONG – Empresa en el Marco de la Responsabilidad Social de la Empresa*, Centro de Estudios de Cooperación al Desarrollo, Madril, 2005.
6. HERNÁN MONTALBÁN, M^a José; DÍAZ LÓPEZ Mónica: *Guía para la Elaboración de Planes de Servicios Sociales. Col. Cuadernos Técnicos de Servicios Sociales*, Madrilgo Erkidegoa, Familia eta Gizarte Gaietako Kontseilaritza, Madril.
7. Novia Salcedo Fundazioa: *Aportación al Debate sobre Gobernanza*, Bilbo, 2004.
8. Novia Salcedo Fundazioa: *Evaluación Cualitativa del I Plan Vasco del Voluntariado 2003-2006*, Bilbo, 2005.
9. EDE Fundazioa: *Evaluación del Proceso de Implementación del Plan Vasco del Voluntariado en Relación con las Organizaciones de Voluntariado*, Bilbo, 2005
10. EDE Fundazioa: *Análisis del Plan Estatal y otros Planes de Voluntariado Autonómicos*, Bilbo, 2005.
11. Europako Boluntariotza Zentroa: *Europako Boluntariotzaren aldeko Manifestua*, 2006.
12. LAVIÑA, Carmen: "Sociedad de la Información y Voluntariado" in *A Fuego Lento* 8, 2003.
13. NELSON, Taryn; WAGENBERG, Alan: *Legislación Nacional del Voluntariado: Una Mirada Comparativa*, 2005 (Ximena Gaviria, Banco Interamericano de Desarrollo).

14. FALCÓN, Enrique: *Dimensiones Políticas del Voluntariado. De la Promoción al Cambio de Estructuras*, Cristianisme i Justícia, Barcelona, 1997.
15. ARANGUREN GONZALO, Luis: *Nuevas Claves para Entender el Voluntariado*.
16. SustainAbility: *La ONG del Siglo XXI. En el Mercado por el Cambio*, 2005.
17. VV.AA: *Guía para Promover el Voluntariado desde la Empresa*, Fundación la Caixa, Barcelona, 2006.
18. Ekonomiaz. Revista Vasca de Economía, Ogasun eta Herri Administrazio Saila, Gasteiz 2006, 60. zenbakia - 3. hiruhilekoa – 2005. I. liburukia La Evaluación de las Políticas Públicas. ISSN-0213-3865.
19. Plan Estratégico del Voluntariado de la Comunidad Valenciana y Plan de Acción del Voluntariado (2005-2008).
20. II Plan de Voluntariado de Castilla La Mancha.
21. I Plan Andaluz del Voluntariado 2003-2005.
 - a. La Agencia Andaluza del Voluntariado en Cifras 2004.
22. II Plan Andaluz del Voluntariado 2006-2009.
23. Plan Regional de Voluntariado de la Comunidad de Madrid 2006-2010.
24. Plan estatal de Voluntariado 2005-2009.
 - a. Evaluación del Plan Estatal del Voluntariado 2001-2004.
 - b. Diagnóstico de la Situación del Voluntariado en España.

II. eranskina – Boluntariotzaren II. Euskal Planerako AMIA diagnostikoa

Jarraian azaltzen dugun AMIA diagnostikotik ondoriozta dezakegunez, EAEko boluntariotzaren egoerak, oro har, **indar** gehiago ageri ditu **ahuleziak** baino. Halaber, **mehatxu** ugari ageri dira, **aukera** kopurua zabala bada ere.

<i>INDARRAK</i>
Historian zehar, Euskadik gizarte zibil oso aktiboa izan du, gizarte-arloko elkarteetan eta mugimenduetan parte hartzeko joera duena. Hori dela eta, gizarte-harreman sendoak eta elkarte-sare indartsua dituen gizartea garatu da, eta hori herritartasunaren zentzu sendoa lortzeko lagungarri izan da.
Irabazi-asmorik gabeko Erakundeetan parte-hartze boluntarioa izateak argi adierazten du kideek balio oso positiboak dituztela, eta Erakundeetako jardueren bitartez etengabe transmititzen dira balio horiek.
Ez dago gai jakin bat boluntario kopuru handiena bideratzen duena; jardun-eremuei dagokienez, askotariko irabazi-asmorik gabeko erakundeetan parte hartzen dute boluntarioek . Parte hartzeko eskaintza zabala eta erakargarria da.
Eguneroko lanean frogatua geratu da irabazi-asmorik gabeko Erakundeen eta boluntarioen lana ezagutarazteko modurik onenetako bat kideen beraien ikuskera ona dela, izan ere, inguruko jendea erraz mobilizatzen baitute horrelako erakundeetan sartzeko.
Irabazi-asmorik gabeko erakundeek trebetasun handia dute euren funtzionamendua egokitzeko testuinguruaren ezaugarrien arabera .
Boluntariotzaren I. Euskal Plana garatu izanak EAEko boluntariotzaren egoera hobeto ezagutzeko aukera eman du.
Irabazi-asmorik gabeko erakunde askok "aurrea hartzen" diete Herri Administrazioei , euren jardunaren hartzailen den gizartearen premiak atzemateko garaian, eta gainera, azkar eta zuzenean eragiten dute gizarte horietan.

AHULEZIAK
Boluntariotzarekin loturiko gaiak dagokienez, alde batetik, informazioerik eza, eta bestetik, interes falta atzematen zaio gizartearen sektore garrantzitsu bati. Horren haritik, testuinguruan bilduriko eragileetako batek ere ez du ekintza boluntarioa hedatzeko eta ekintza horri daukan garrantziaren arabera duintasuna emateko formula egokia aurkitu.
Boluntariotza "jende gazte, aktibo eta prestatuari" lotzen zaio , nahiz eta herritar guztientzako aukera irekia izan.
Boluntariotza-kontzeptuarekiko erabateko autoidentifikaziorik ez dago.
Boluntariotzaren ezagutzari dagokionez aurrerapenak egin badira ere, oraindik re ahalegin handiagoak egin behar dira sektoreari eragiten dioten gai guztiak ikertzeko . Ildo horretatik, beharrezko ikusten badute ere, irabazi-asmorik gabeko Erakundeek lan-kargatzat jotzen dute makroazterlan horietan parte hartzea, eta, gainera, ahalegin horretatik inolako etekinik ez dutela ateratzen atzematen dute.
Irabazi-asmorik gabeko erakundeek arazo ugari izaten dituzte boluntarioak biltzeko , eta hori oso nabaria da gaur egun, hain zuzen ere sekular baino nabariagoa. Boluntario kopuruak behera egin du, beraz, eta, ildo horretatik, bereziki kezagarria da gizonezkoek erakundeetan presentzia urriagoa izatea, baita pertsonak beren bizitzaren fase guztietan biltzeko zailtasuna eta pertsona horiek, gazteek bereziki, erakundeetan ematen duten denbora urria ere.
Horren haritik, erakundeetan ere nolabaiteko pentsamendu autokritikoa nagusitu da, haietan ere gabezia jakin batzuk atzeman dituztelako haietara jotzen dituztenen itxaropenak betetzerakoan .
Guretzat, erakundeetan honako ahulezia hauek nabari dira; <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Boluntariotzaren eremuan ere atzematen dira gaur egun gizonen eta emakumeen rolen artean dauden alde nabarmenak. <input type="checkbox"/> Irabazi-asmorik gabeko Erakundeek ez dute nahikoa baliabide ekonomikorik, ezta beharrezko langile eta azpiegiturarik ere, boluntarioen garapenean eta zereginetan laguntzeko. <input type="checkbox"/> Irabazi-asmorik gabeko erakundetan, boluntarioek ez dute erabaki betearazleak hartzeko behar besteko gunerik. <input type="checkbox"/> Irabazi-asmorik gabeko zenbait erakundetan, erakundearen jarduera jakin batzuetan soilik aritzen dira boluntarioak, eta boluntarioek ezin izaten dute parte hartu erakundeak garatzen dituen zerbitzu eta zeregin guztietan. <input type="checkbox"/> Irabazi-asmorik gabeko zenbait erakundetan, administrazioko zereginetarako soilik baliatzen dituzte boluntarioak, eta kasu askotan, soldatapeko langileei laguntzeko.
Zenbait kasutan arazoak ageri dira boluntario kolektibo jakin batzuk aseguratzerakoan .
Boluntarioak zuzeneko ekintzari lotzen zaizkio bereziki , eta zailtasunak dituzte irabazi-asmorik gabeko Erakundeen bestelako alderdietan (kudeaketa, estrategia, bilerak eta abar) inplikatzeko.
Boluntarioen elkarte txikiak galtzen ari dira edo erakunde konplexuago bihurtzen ari dira; horrela, eraginkortasun handiagoa izango dute, baina boluntariotzaren garrantziaren ikuspegia galtzen dute .
Gizartean ez dago modu altruistan eta eskuzabal jarduteagatik nabarmentzen den erreferentziazko eredurik . Gaur egun indarrean dauden balioek adierazten duten joera oso urrun dago jarduera boluntarioaren esanahitik; gazteenentzat, bereziki, ez dago inolako eredurik.
Irabazi-asmorik gabeko erakundeetan ebaluazioaren kultura sustraitu gabe dago, eta, hortaz boluntariotzarekin zerikusia duten gaiak ezin dira behar bezala garatu, ebaluazio egorik ezean.
Irabazi-asmorik gabeko erakundeek, eta hortaz, erakunde horietako boluntarioek ere, ez dute erabateko sarbiderik informazioaren teknologietara .
Irabazi-asmorik gabeko zenbait erakunderen atomizazioa eta bakartzea ; horren ondorioz, indarrak batzea eragozten duen lankidetzaren falta sortzen da. Hori ez ezik, Erakunde arteko benetako lehia-egoera batzuk atzematen ari dira.
Prestakuntza mota guztiak (orokorra, espezializatua eta abar) barnean hartuko dituen boluntarioentzako prestakuntza-programa osorik ez dago .
Irabazi-asmorik gabeko erakundeek garrantziko prestakuntza-premiak dituzte beren misioa garatzearekin zerikusia duen orotan.
Boluntariotzaren Euskal Kontseilua ez da behar bezain ezaguna boluntariotza-gaiak lantzen dituzten eragileen artean.
Irabazi-asmorik gabeko erakundeek ez zuten hartu Boluntariotzaren Lehen Euskal Plana euren plan moduan .
EAEko irabazi-asmorik gabeko erakundeek ez dute behar adina ezagutzen Boluntarioei buruzko Euskal Legea .
Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra ez da behar beste iritsi irabazi-asmorik gabeko erakundeetara.
Boluntariotza-alorreko "jardunbide praktikoei" buruzko informazioa urria da.

MEHATXUAK
Irabazi-asmorik gabeko erakundeetan profesionalizatzeko premia gero eta handiagoa denez, boluntariotza tekniko bilatzea eragin dezake horrek, boluntariotza eraldatzailea bilatu beharrean . Horren haritik, Hirugarren sektorea deiturikoaren merkantilizazioak zenbait arrisku ekar ditzakeela ohartarazi behar dugu.
Lan-sorgune gero eta garrantzitsuagoa izaki, Hirugarren Sektorean lanerako aukera bilatzen ari diren boluntarioak sar daitezke .
Boluntariotzarekin elkartasunaren gure %a bete dugula pentsa dezakegu, baina jendeak izan behar dituen balioen sorta orokorraren zati bat baino ez da boluntariotza .
Unibertsitateetan, boluntariotza eta aukera libreko kredituak baliozkotu dira, eta hori boluntariotzaren kontzeptuaren funtsezko esanahiaren aurka doa, benetako boluntariotza eskuzabaltasunez, elkartasunez eta borondatez gauzatu behar dela aintzat hartuta. Nolanahi ere, esan beharra dago irabazi-asmorik gabeko hainbat Erakundek uste dutela lehen urrats hori baliagarri izan daitekeela gazteek, ondorenean, erakundeekin bat egiteko eta erakundeetan parte hartzeko.
Irabazi-asmorik gabeko erakundeetan gero eta jende gehiago egotea praktikak egiten , baldin eta erakundeetako boluntarioen kopurua jaitsarazten badute. Nolanahi ere, kontuan hartzekoa da praktiketan dauden horiek batzuetan geratu egiten direla boluntario gisa, praktikak amaitutakoan.
Balio solidarioak eta komunitatearen zati izateko balioak galdu direnez, ohiko asoziazionismoa krisi-egoeran sartu da.
Boluntariotzak komunikabideetan duen presentzia eskasa .
Boluntariotzaren gaiak diru-laguntzen aldetik duen babes txikia , batik bat, boluntariotzako koordinatzailearen figura sortzeko eta horri eusteko diru-laguntzen aldetik.
Irabazi-asmorik gabeko zenbait Erakunderen gizarte-helburua lausotu da, jardueraren merkantilizazioaren ondorioz .
Irabazi-asmorik gabeko Erakundeetako boluntarioen tratamenduarekin zerikusia duten lege-eta administrazio-betekizunak gero eta handiagoak dira.
Irabazi-asmorik gabeko Erakundeek gehiegizko burokratizazioari eta eskakizun tekniko ugari egin behar dizkiete aurre diru-laguntzak jaso ahal izateko, eta hori ere mehatxu da jarduera boluntarioarentzat.
Batzuetan, Herri Administrazioekin bat ez etortzeko beldur dira irabazi-asmorik gabeko erakundeak.
Egoera ekonomikoak eta hauteskunde-testuinguruek egonkortasuna gal dezakete, eta horrek Hirugarren Sektoreari eragin diezaioke.
Boluntariotzari dagokionez, instituzioen arteko koordinazio eza , sinergiak sortzeko aukera bikaina galduta.
Herri Administrazioak gizarte-ekintzaren eremuak profesionalizatzaren alde egitea. Hori, berez beharrezkoa eta positiboa bada ere, lan hori osa dezaketen boluntario kolektiboak baztertu edo babesgabekten ditu.

AUKERAK
<p>Epe ertain-luzera, boluntariotzaren sustapenean dihardugun eragile guztiok gure jardun eremuak dibertsifikatzeko eta haietan eragiteko aukera izan dezakegu. Hala,</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Hezkuntza-sisteman oinarrizko jardunak gauzatu beharko ditugu, unean uneko kanpainak gaindituz, <input type="checkbox"/> Etorkinek gizartean eta politikan parte hartzea sustatu behar dugu, erabat integra daitezen lortzeko, <input type="checkbox"/> Erakundeetako erabiltzaileen artean boluntariotza sustatu behar dugu, nahiz eta horrek egoera jakin batzuetan zailtasunak ekar ditzakeen, <input type="checkbox"/> Jarduera boluntarioa erretiratu eta aurretik erretiratuaren artean sustatu eta zabaldu behar dugu. <input type="checkbox"/> Udan boluntariotza sustatu behar dugu, boluntarioak bildu eta luzaroago gera daitezen lortzeko.
<p>Zenbait inkestak aditzera ematen dutenez, herritarren Hirugarren Sektorearekiko konfiantza-maila handia da.</p>
<p>Gure munduari ikuspegi globaletik begiratuko dion boluntariotza ahalbidetzen dute globalizazioaren aurkako mugimenduek.</p>
<p>Hirugarren Sektoreari dagokionez, enpresen eta irabazi-asmorik gabeko Erakundeen arteko harremana handitu behar da. Boluntariotzari dagokionez, enpresa-mundutik datozen pertsonen boluntariotza (enpresa-boluntariotza) sakonagotik garatu behar dugu.</p>
<p>Ildo horretatik, zera ikusten dugu, Aurrezki Kutxentzat, irabazi-asmorik gabeko Erakundeekiko harremana haien Gizarte Ekintzen ardatz nagusietako bat dela, boluntariotza-arloan bereziki.</p>
<p>Informazio eta Komunikazio Teknologia informatzeko, komunikatzeko eta ekiteko toki gisa.</p>
<p>Informazio eta Komunikazio Teknologia berrien bitartez (boluntariotza birtuala) lan egiten duten lagunen boluntariotza.</p>
<p>Badirudi Herri Administrazioen estrategia garrantzitsuenetako bat herritarren parte-hartzea dela. Boluntariotzak, parte hartzeko modu bat den aldetik, aurrerapauso handiak egin ditu arlo horretan, eta boluntariotzarekin zerikusia duten eragile guztiak beren gain hartu beharko dute herritarren parte.-hartzearen ahalmen guztiak aztertzeko eta ustiatzeko ardura.</p>
<p>Familia eta lana bateragarri egiteari dagokionez sentsibilizazioak gora egin du, eta, horri esker, zenbait aurrerapen egin dira, horrek boluntariotzan nola eragingo duen oraindik ikusteko badago ere.</p>
<p>Hirugarren Sektoretik zenbait urrats egiten dira plan estrategikoak eta kalitatezko sistemak ezartzeko, eta hori boluntarioen kudeaketa hobetzea errazten ari da.</p>
<p>Irabazi-asmorik gabeko Erakundeen gardentasuna hobetzeko ekintzek boluntarioen hurbiltzea eta kudeaketa errazten dituzte.</p>
<p>Irabazi Asmorik gabeko Erakundeetatik koordinazioan eta osagarritasunean oinarritutako kultura ezarri behar da, eta horretarako koordinaziorako, topaketarako, eztabaidarako eta negoziatorako guneak sortu eta indartu behar ditugu, problematika komunei loturiko erakunde-sareak sortzeko. Une honetan, Europako eta nazioarteko sareekin bat egiteak ezinbestekoa dirudi.</p>
<p>Administrazioetatik Gobernantza-prozesu zabala jarri behar dugu abian, Irabazi Asmorik gabeko Erakundeen parte-hartzearekin. Gobernantza kudeaketa-eredu publiko berria da, eta, horren arabera, gizarte zibilarren eta enpresen gainerako eragileetara zabaltzen dituzte Administrazioek beren prozesu eta mekanismoak, informazioko, kontsultako eta elkarrizketako uneak zabalduz egin beharreko ekintzetan adostasun handiagoa bilatzeko.</p>
<p>Politikak zehatzerakoan betiere Europara begira egon behar dugu, benetako elkarganetzea ahalbidetuko duten aukerak bilatuz. Erakundeak eta administrazioa boluntariotzari buruzko Europako lan-foruetara biltzea ere neurri interesgarri bat izan daiteke Plan hau garatzerakoan.</p>




**ETXE BIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA**
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
Gizarte Ongizateko Zuzendaritza


**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES**
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Bienestar Social


III. eranskina - AMIA koadroa, Helburu Orokorren eta Espezifikoaren arabera

(I) Indarra – (A) Ahulezia – (AU) Aukera – (M) Mehatxua



I	AU
A	M





3. ILDO ESTRATEGIKOA
 Boluntarioritza osatzen duten eragileak erabat koordinatutako dauden boluntarioritza-guneak eratu eta sustatzea